1919tik | 2.512 zenbakia | 2016/06/19 | 3,90 € | argia.eus

ARGIA

HERRI ELKARGOA

EUSKAL HERRIA ONARTZEKO URRATS HANDIA

DAVID GARNATXO: "ARROZ BERA EKOIZTEN DA INDIAN, ARGENTINAN EDO ARGUEDASEN"

EUROKOPA 2016: ZENBAT LANGILE BALIO DU ADIDASEN KAMISETA BATEK?

ARTISTAK EKITALDI POLITIKOETAN: EREDUZ ALDATZEKO GARAIA?

9 771578402 139093 02512

JAKOBA ERREKONDOREN
LIBURU BERRIA

Jakoba Errekondoren “BIZI BARATZEA” liburutik abiatuta, baratzea mundu askotarako ataria da. Oraingoan irudia eta komikia nagusi. Zortzi komikigile handien eskutik: Antton Olariaga, Asisko, Ainara Azpiazu, Mattin Martiarena, Joseba Larratxe, Zaldieroa, Unai Gaztelumendi eta Unai Iturriaga. Maialen Lujanbioren sarrerarekin

19’50 €

18 € harpidedunentzat

ESKURA EZAZU AGORTU BAINO LEHEN

✆ 943 371 545
www.argia.eus/denda
denda@argia.eus

ARGIA
argia.eus

BIZI BARATZEA
bizibaratzea.eus

ARGIA

2.512 zenbakia | 2016/06/19

PANORAMA

4 Asteko argazkia
6 Albisteak
10 Gazteluko Plazatik
11 Hor dena gailu
12 Net Hurbil

IRITZIA

19 Asier Blas
20 Angel Erro
21 Joxe Iriarte 'Bikila' Oihana Etxebarrieta
22 Anuntxi Arana

Pestizidak, gaixotasunak, beste espezie batzuen erasoak... Erleen heriotza masiboen arrazoiak aztertu ditugu. (ARGAZKIA: QYPCHACK-CC BY SA)

40 BIZI BARATZEA
42 DENBORAREN MAKINA
43 ARGIA KOMUNITATEA
48 KULTUR KRITIKA
50 ZUZENEKO EMANALDIA
51 DENBORA-PASAK
52 ARGI-KONTRA: IZARO ANTXIA
54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: KEPA ETCHANDY

SAKONEAN

14 | David Garnatxo, Landare elkarteko koordinatzailea: produktu ekologikoak merkatzen saiatzen / Reyes Ilintxeta
24 | Euskal instituzioa sortuko ahal da! / Mikel Asurmendi
30 | Ekonomia ostu zigutenekoa / Lander Arretxea Bereziartua
33 | Dantza garaikidea, gorputz adimentsuak / Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
34 | Zerk eragiten du erleen heriotza masiboa? / Garazi Zabaleta
38 | Nerabeak, beraien hizkuntza aldaketen ikertzaile / Malen Aldalur Azpillaga
44 | Artista baten galderak mitin baten erdian / Kepa Matxain

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Jon Ander de la Hoz, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Sara Arruabarrena, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produkzioa: Antza S.A.L.
Harpidetzak: Iraitz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde. **Ikerketa:** Andoni Zulaika.

HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertzial: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:
Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.

NO REAPERTURA
GAROÑA
EZ ESKERRIK ASKO
ITXI BETIKO!!

PANORAMA

“Alderdi politikoak has daitezela Garoña ixteko bide bila”

2.000 lagun inguru izan zen ekainaren 11n Garoña behin betiko ixtearen aldeko manifestazioan, Gasteizen. Segurtasun Nuklearraren Kontseiluak azaroan eman behar du zentral nuklearra berriz martxan jartzearen aldeko edo aurkako epaia; Araba Garoñarik Gabe plataformak ez du zalantzarik: “Aldekoa izango da”. Hala balitz, 2031ra arte luzatuko litzateke baimena. Hori saihesteko “hitzetatik ekintzetara” igarotzeko eskatu zien Alberto Friasek alderdi politikoei, plataformaren izenean: “Garoña hauteskunde kanpainan elkar erasotzeko erabili ordez, has daitezela hura behin betiko ixteko bideak bilatzen”.

Argazkia: DosPorDos

Euskal herritarrek, batez beste, 10etik 5,79ko nota jartzen diote beren zoriontasun sexualari

Kaixomaitia eta Aztikerren ikerketa

argia.eus/multimedia

Amerikanuak

AEBetako Elkon bizi diren euskaldunen egunerokotasunari buruzko dokumentala. Ikuspuntu errealista batetik munduko euskal diasporaren zati baten egoera erakusten da.

Erraustegia eta eredu soziala

Pello Zubiria Kamino ARGIAko kazetariak ireki zuen hitzaldien txokoa Donostiako Gipuzkoa Zutik kanpaldian.

Gabarra, izebergaren punta

PODIUM

Jon Torner Zabala
@jtorner

Kalapita ederra sortu du ditxosozko gabarrak. Badakizue, Athletic-eko neskek Liga irabazi dute baina ospakizunen baitan itsasadarrean barrurako ibilaldia ez sartzea erabaki zuen klubak, gizonezkoek iaz Superkopa irabazi zutenean ere ez zelako halakorik izan, gaizki ulertu ez badugu.

Klubak, federazioak, instituzioak, hedabideak, babesleak, zaleak... jarrai dezakegu parean duguna seinalatu eta gure buruak salbuesten, baina horrela alferrik gabiltza. Norberak duen erantzukizuna bere gain hartu ezean... Gabarraren kontua txiki uzten duen gurpil bat bezalakoa baita hau, gaitz sakonago baten sintoma. Hedabideek luzera begira egin behar dute apustu, emakumeen kirolaz apurka-apurka baina etengabe informatu; interesa areagotuko luke horrek, ispilu izango diren erreferente gehiago sortu, babesleak erakarri eta emakumezko kirolarien profesionalizaziorantz urratsak ematen lagundu, Mikel Ibargoien Info7 irratiko kazetariaren hitzetan.

Administrazioek, bestalde, zorrotzago kontrolatu beharko lukete diru-laguntza publikoak jaso ohi dituzten federazioek-eta haien aurrekontuen aplikazioan edota komunikazioan genero inpaktua aintzat hartzen ote duten, hizkera sexista baztertzeko neurriak aplikatu eta parte-hartze programak garatzen ote dituzten eta abar, Ainhoa Azurmendi berdintasun gaietan adituaren iritziz. "Ezinbestekoa da aldaketa estrukturalak ematea", dio.

Aldaketa estruktural horiek oinarritik bertatik hasita eman beharko lirateke, gogoan izanik neska eta mutilak jaiotzatik sozializazio modelo desberdinen arabera hezten direla, eta horrek eragina duela gerora bakoitzak ariketa fisikoa eta kirolarekiko izango duen jarreran, zenbait adituk azaldu duenez.

"Ez utzi inork beldurtu zaitzan zaren bezalakoa izateagatik"

LOS ANGELESEKO HARROTASUN EGUNEKO PARTAIDEAK

AEBetako Orlandon, LGBT komunitatean arrakasta duen diskoteka batean 50 lagun hil ditu Omar Marteen-ek. Homosexualenganako gorrotoa leporatu diote, eta Estatu Islamikoak bere egin du ekintza. Horrez gain, James Wesley izeneko gizona antzeman dute Santa Monican, LGBT komunitatearen aurka erasoa prestatzen ari zela. Ekitaldi ugari bertan behera gelditu dira, baina Los Angeleseko Harrotasun Egunari eustea erabaki dute, hain juxtu halakoen aurrean aldarrikapena beharrezkoa delakoan. **RT.COM (2016-06-13)**

NAZIOARTEKO TURISMOA

2014-2015eko datuak



EUROPA
584 milioi (%51)
509.000 milioi (%41)

ASIA ETA OZEANO BAREA
263 milioi (%23)
377.000 milioi (%30)

AMERIKA
182 milioi (%16)
274.000 milioi (%22)

AFRIKA
56 milioi (%5)
36.000 milioi (%3)

ERDIALDEKO EKIALDEA
50 milioi (%4)
49.000 milioi (%5)

Nazioarteko turismo bidezko diru-sarrerak

Nazioarteko turista kopurua

Infografia: GARBINE UBEDA GOIKOETXEA

Barne Produktu Gordinaren **%9**

11tik 1 zuzenki edo zeharka turismoari lotuta dauden lanpostuak

1,4 mila milioi dolar esportaziotan

Munduko esportazio guztien **%7**

Zerbitzu esportazioen **%30**

Turismoan gehien gastatzen duten herrialdeak

(mila milioi dolarretan)

MUNDUKO ESPORTAZIOAK

Axier Lopez ARGIAko kazetaria Eusko Legebiltzarrean izan da Mozal Legeaz hitz egiten.

Gipuzkoa Mozal Legerik gabeko lurralde izendatu dute Batzar Nagusiek

Sara Arruabarrena Azkarate / Axier Lopez
@s8ara / @axierL

ARGIAk aurkeztutako Mozal Legearen inguruko proposamena onartu dute Gipuzkoako Batzar Nagusiek. EH Bildu, PSE-EE, EAJ eta Podemosek elkarrekin aurkeztutako testuak jasotzen du Mozal Legea Gipuzkoan ez aplikatzeko konpromisoa.

ARGIAren testuak hiru puntu nagusi jasotzen ditu: Herritarren Segurtasun Legearen aurkako jarrera publikoki adieraztea, legea berriz aplikatuz gero zigortuari babesa adierazteko konpromisoa hartzea eta Mozal Legea Gipuzkoan ez aplikatzeko konpromisoa. Hortaz, Espainiako Estatuan Mozal Legea ez aplikatzeko konpromisoa hartu duen lehen lurraldea da Gipuzkoa.

Mozio proposamena maiatzaren 10ean aurkeztu zen eta osoko bilkuran eztabaidatu ondoren onartu egin dute EH Bildu, PSE-EE, EAJ eta Podemosen babesarekin. Hartara, 46 ordezkaritik 45ek babestu dute proposamena. Juan Carlos Cano, PPk Batzar Nagusietan duen ordezkaria, bakarrik geratu da Mozal Legea eta ARGIAri ezarritako isuna ez baitu babestu.

Gogoratuko duzuenez, Axier Lopez ARGIAko kazetariak isuna jaso zuen apirilaren 6an. Espainiako Gobernuak Gipuzkoan duen ordezkaritzak ezarri zuen zigorra, Mozal Legeaz baliatuz. Martxoaren 3an Naroa Ariznabarretaren atxiloketaren berri ematen ari zela, Twitter bidez argitaratutako argazki batengatik jaso zuen isuna Lopezek, eta Euskal Herrian ez ezik Espainiako Estatuan Mozal Legeak zigortutako lehen kazetaria izan zen.

Eusko Legebiltzarra ere, mozalaren aurka

Eusko Legebiltzarreko batzorde batean ere izan da Axier Lopez, gaiaz hitz egiten. EAJ, PSE-EE eta EH Bilduko ordezkariak agertu dira eta Mozal Legearen kontrako konpromisoa azaldu dute. Gaia zehatzago landuko dutela adierazi dute politikariek, adostasuna lortzeko bidean. ARGIAk luzaturiko hiru eskaerei ere helduko diete, horiei zein forma eman erabakitzeko.

EKONOMIAREN TALAIAN

Gure lotsaizun eta utzikeriaren hilotzak

Juan Mari Arregi

Gerratik eta gosetik ihesean Europara babes bila doazen migratzaileen olatuak jarraitzen du. Azkeneko urtean milioi bat lagunetik gora aritu da gure artean babes bila. Milaka bidean geratu dira. Batzuk Mediterraneoaren itsas hondoan daude, munduko hilobi handiena, beste batzuk itsasertzean aurkitu dituzte itota. Aurten 3.000 lagunek galdu dute bizia Mediterraneoa igaro nahian. Duela bi aste Libiako itsasertzean 250 hilotz berreskuratu ziren. Jadanik ez dira albiste. Gure lotsaizun eta utzikeriaren hilotzak dira.

Europak segitzen du migrazio hori gorenean zegoenean hartutako konpromisoak bete gabe mugak ixten. Europar herritarrek euren gobernuak bultza beharko lituzkete konpromiso horiek betetzera. Hauteskundeak dauden tokietan, orain Espainiako Estatuan izango diren moduan, herritarrek exigitu behar diete politikariei benetako hausnarketa errefuxiatuek jasaten duten egoeraz. Soluzio ekonomikoak aurkitzeko ordua da –inbertsioak alegia–, baita politikoak ere –elkarrizketa eta negoziazioa gatazkaren alde ezberdinen artean– migratzaileen jatorriko herrietan aurki dezaten Europara ihes egin behar ez izateko modua. Bidean hainbeste hildako egotea eragotziko luke horrek, hainbeste etsipen, europar babestokia bilatzen dutenen artean.

Arazoa jatorrian konpontzen ez den bitartean, Europak, Espainiako eta Frantziako estatuek eta Euskal Herriak, baliabide ekonomiko, politiko eta sozial guztiak jarri beharko lituzkete milaka migratzaile horiek aterpea eta ostatua jaso dezaten, bizitzari duintasunez ekin diezaioten berriz. Euskaldunok, historiako zenbait momentutan beste herri batzuen babesa jaso genuen. Orain guri dagokigu hori egitea.

TOPATU.EUS

Aske gelditu da Jone Amezaga

GERNIKA-LUMO. Hemezortzi hilabete igaro ditu preso Zaballa (Araba), Soto Del Real (Madril) eta Brievako (Avila) espetxeetan. 2014ko abenduaren 15ean atxilotu zuten Gernika-Lumoko merkatuan kalez jantzitako ertzainek. *Herri Libre* bihurtu zuten Gernika-Lumo 2014ko abenduan. Ustez "terrorismoaren gorazarrea" egiten zuen pankarta bat eusten zuen makilan aurkitutako hatz-marka batzuk frogatzat hartuta kondenatu zuten Jone Amezaga Arriaga gazte errigoitiarra 18 hilabeteko espetxe zigorrera. Irmoki gaitzetsi zuen Bizkaiko herriak Espainiako Auzitegi Gorenak berretsitako kondena eta mugimendu plurala artikulatzea lortu zuten ehunka herritar bilduz.

Aktak euskara hutsean bidaltzea legezkoa da

Jon Ander De la Hoz Arregi
@delarregi

Erabat legezkoa da udaletako aktak euskaraz bidaltzea. Hala ebatzi du EAEko Auzitegi Nagusiak Aramako Udalaren auzian, Espainiako Gobernu Ordezkaritzaren helegitea baztertuta.

Irizpidea finkatuta

Irurako Udalaren aurrekaria osatu eta behin betiko epai irmoa eman du auzitegiak. Hala, irizpidea ezarri du gainontzeko auzientzat. Espainiako Gobernuko ordezkari Carlos Urquijok zenbait udalerriren aurka jarritako salaketak ireki zuen auzia.

Euskararen Legea oinarri

Epaiaren arabera, dokumentazioa gaztelera hutsean bidaltzea bezain legezkoa da euskara hutsean bidaltzea, administrazio publikoa euskaraz jakitera behartzen baitu Euskararen Legeak.

Amaiera

"Oztopoz betetako bide luze honi amaiera ematen dio. Benetan albiste ederra da", Josu Labaka UEMAko lehendakariaren esanetan. Epaiaren arabera, bertako hizkuntza ofizialetako bat kontuan ez hartzea "benetako zentzugabekeria" da.

PREKARIETATEA

189

dira Nafarroako TRWn kontratatu dituzten behin-behineko langileak.

123

dira enpresa berak martxoan kaleratu zituen langileak, irabazirik ez zuela argudiatuta. Botatako beharginek adierazi dute "irainduta" eta "suminduta" sentitzen direla, multinazionala jendea hartzen ari dela ikusirik.

GALDEKETA GEHIAGO

Gure Esku Dagok galdeketak iragarri ditu Bizkaia eta Nafarroako 22 herritan. Bestalde, muga administratiboen gainetik, erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen duen herri bat garela irudikatu dute Irun, Hendaia eta Hondarribiko herritarrek.

ETXEBIZITZA DUINA ALDARRI

Etxebizitza duina aldarrikatzeko 30 orduko baraualdia egin dute Areatzan (Bizkaia). Etxebizitza Legearen aurkako eta legea garatzen duen dekretuaren aurkako ekintza izan da. Egun existitzen diren bazterkeria kasuak ikusaraztea ere izan dute helburu.

KULTUR GUNE INDEPENDENTEA

Gune kultural independente berria jaio da Gasteizen. Zas espazioa Alde Zaharrean dago eta topagunea eta ekimen anitzetarako hazitegia izango da.

Errauskailua geldiarazteko esperantza sortu da

Xabier Letona
@xletona

JOSE IGNACIO ASENSIO Gipuzkoako ingurumen diputatuak SER katean joan den astean egindako elkarrizketan esan zuen bere aurretik hitz egin zuten medikua eta zientzialaria ideologizatuak zeudela. José Cruz Ruiz Villandiego Donostiako Quirón Ospitaleko Estomatologia eta Odontologia zerbitzuko zuzendaria zen bata; Fernando Palacios bestea, Espainiako Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Nagusiko kidea. Bien ustez, errauskailuak arriskutsuak dira osasunarentzako.

Asensiok berea defendatzea logikoa da, elkarrizketak erakusten zuenez oso argudio makalekin bada ere. Baina bego, bere iritzia da. Horren logikoa ez dena entzulea lerdotzat hartzea da, eta horrela esan gabe ere, Villandiego eta Palacios ideologizatuak zeudela aipatzean, horixe egiten ari zen. Patronalak sindikatu borrokalarienei buruz dioen bera da: "Horiek ideologizatuak daude". Edo UPNk, PSNk, PPk eta Ciudadanosek Iruñeko haur eskolen aferan hainbat gu-

> Dozenaka batzuk dira goizetan, ehunka arratsaldetan, milaka batzuetan… eta beste milaka askoren irribarrea pizten dute maiz

rasorekin udal agintarien aurrean zera aldarrikatzen dutenean Udaletxe Plazan: "Hezkuntza apolitikoaren alde".

IMANOL LASA Gipuzkoako Diputazioko bozeramaileak ere antzekoa egin zuen maiatzaren 28ko Donostiako giza kate arrakastatsuari erantzunez: "Errespetatzen ditut herritarrak, baina kanpaina horren atzean intentzionalitate politikoa eta ezker abertzalea daude". Herritarrekiko begirunea agertu zuen, baina ez Ahal Dugu, Ezker Anitza, Greenpeace edo giza katea sostengatu zuten beste hainbat erakunderekiko. Egia esan, "dena da ETAk" funtzionatu bazuen, zergatik ez "dena da ezker abertzalea" merke horrek?

Ideologiez gain, Zubietako errauskailua "zaborren arazoa" konpontzera datorren mirari gisa saltzeak asko esaten du hainbat politikarik herritarren mailaz duten iritziaz. Ideia horrek, hala ere, indarra izaten jarraitzen du, besteak beste halako mezua dutelako *El Diario Vasco* edo *Diario de Navarra* moduko hedabide sistemikoek. Milaka herritarrek sinesten du haien egian, baita haien ikuspegi espainiar, eskuindar eta monarkikoaren aurkakoak badira ere.

Gipuzkoa Zutikekoek bizitzaren aldeko ideologia aldarrikatzen dute, pozik, temati eta jantzi. "Lehengo garaiekin" lotzen saiatu izan zen berriro ere Imanol Lasa, baina mugimenduaren urratsak jarraitzen dituenak iraganeko borroka askoren aztarna gutxi aurkituko ditu: suziriz baino, dantzekin erantzuten diote Ertzaintzari; alaitasunetik eta jakintzatik erakarri nahi dute herritarra politikara, Andoni Egañak haiei buruz idatzi berri duen gisan "politika zentzurik sustraienekoan hartuz".

Erraustegiaren aurka bai, berau egungo sistemaren sinbolotzat hartuz, eta beraz, euren antikapitalistmoa argi eta harro plazaratuz. Parisko Errepublikaren plazatik datorren "borroken elkargunea" eurena eginez; ideia esparru zabal bat bai, baina proposamen itxi eta zehatz barik. Azken helburuari baino bideari garrantzia emanez. Horizontaltasuna giltzarritzat joz. Komunikazioa eta sare sozialen ezagutza eta erabilera bikain baliatuz. Iragana? Gurako luke makina batek, baina Gipuzkoako Plazatik Bulebarreko haien ibilbideetan 15-M, Occupy Wall Street eta Nuit Debouten lurruna aireratzen da.

Dozenaka batzuk dira goizetan, ehunka arratsaldetan, milaka noizbehinka… eta beste milaka askoren irribarrea pizten dute maiz. Erantzukizuna ere ez da makala, altxor txiki bat eraikitzen duenak, ardura handia baitu gero berau zaintzen. Nola bukatuko den? Inork ez daki, baina abiatu izana da garrantzitsuena. Ilusio eta kezka askoren sortzaile da Gipuzkoa Zutik, beste askorekin batera –mediku, guraso, Zero Zabor Taldeak, alderdi…– Zubietako errauskailu proiektua berriz ere geldiaraztea posible dela ikusarazi duelako. Gertatuko den, inork ez daki, helburu erraza ez da, baina eztabaida politikoa puntakoa da jada Gipuzkoa osoan. EAJk, PSE-EEk eta PPk jadanik ez dituzte arratoiak eta poltsa beltzak saldu behar askatasunaren sinbolo gisa; orain gero eta mamu handiagoa den errauskailua saldu behar da, eta hori ez da hain samurra.

Errauskailuaren aurka ari diren medikuek bi hilabete daramatzate Asensio eta Markel Olano diputatu nagusiarekin bildu nahian. Zer zentzu du hausteskunde kanpainetan Gipuzkoako hamaika txokotan egotea bertakoekin argazkia eginez, eta halako eztabaida handian aktore nagusietako bat ez hartzeak? Hori ere politika zaharra da. ■

OZTibarren GeHienGo OSoa euSkalduna da...
horregatixe FranTziaR ERRepublikak SendaTu eGin nahi gaITu...
AU SUIVANT...
mediku ERdalduna eKARRIZ...
ATx !
nahiANTIK?
oztibarre.osagarri @ gmail.com

*La Roja*k daraman Adidas logoak 30.769 langile txinatar balio du

Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

2016ko Eurokopak berekin daramatza kirol janzkien marka handiek publizitatean eta esponsor operazioetan inbertitutako dirutzak. Baina hitzetik hortzera "erantzukizun soziala" darabilten marka handi horiek –Nike, Adidas, Puma– kosteak jaisteko lasterketa zoroan segitzen dute. Beti eskulan zanpatuagoaren bila, orain Txinako produkzioak Vietnam edo Bangladeshera daramatzate.

Zer daukate ikusteko Real Madriden izar Cristiano Ronaldok, 2016ko Eurokopa antolatu duen Frantziako selekzioak eta Vietnamgo oihalgintzako obrero batek? Marka bat: Nike. 25 milioi euro pagatzen dizkio urtean Ronaldori logo famatua eramateagatik oinetako eta kamixetetan, eta beste 42,6 milioi oilarraren selekzioari. Langile vietnamdarrak ekoizten ditu bota eta tixertak hilero 170 euro kobratzearen truke, Vietnamgo familia baten oinarrizko beharrak asetzeko behar dena baino gutxiago.

Egin kontu. Adidasek Espainiako futbol selekzioari pagatzen dizkion 24 milioi euroekin soldata duina kobratuko lukete Kanbodiako 17.559 langilek, Indonesiako 18.796k edo Vietnamgo 27.242ek. Nikek *Les Bleus* bezala, Adidasek esponsoritzatzen du *La Roja* eta Alemania, Pumak Italia. Jokalarietan, Nikek Ronaldo, Adidasek Lionel Messi (38 milioi) eta Paul Pogba (38). Klubetan, Nikek Bartzelona (38,3) eta Paris Saint Germain (7,9), Adidasek Manchester United (114,3) eta Municheko Bayern (60,7).

Informazio hauek eta askoz gehiago bildu ditu *Alternatives Economiques* aldizkari frantsesak "*À qui profite l'Euro 2016*" (Eurokopa 2016 noren probetxurako) dosierrean. Afera elkarlanean jorraturik *Basta!* hedabide elektronikoarekin, honek titulatu du: "Euro 2016: Nike eta Adidasek ihes egiten diote beren erantzukizun sozialari gero eta soldata txikerragoak pagatu nahian".

Ethique sur l'Etiquette kolektiboan ari den Nayla Ajaltounik komentatu du: "Zifra deigarriok irudiztatzen dute kirol ekipamenduetako marka handien eredua: marketin eta komunikazioan sekulako dirutzak gastatzen dituzte beren akziodunei errentagarritasuna bermatzeko, eta, aldiz, konpainien hazkundearen oinarria diren langileei ez diete onurarik ekartzen".

Nike, Adidas eta Pumak beren esku daukate kirol janzki eta oinetakoen merkatu mundialaren %70. Marketin eta babesletzan egiten dituzten gastuak, akziodunen dibidenduak bezala, sekulako abiadan hazten dira, baina bitartean Asiako –batik bat Txina, Vietnam eta Indonesiako– azpi-kontraten soldatetan gastatzen dutena ez da aldatzen, oso baxu segitzen du beti.

Hamar urtean Niken akzioen urteko irabaziak %135 handitu dira, ia hiru mila milioi euro 2015ean. Adidasen etekinak %66 hazi dira, 600 milioitaraino.

Kalkulu gehiago egin ditu Ethique sur l'Etiquette kolektiboak. Herritar batek Nikeri oinetako pare baten truke pagatzen dizkion 100 eurotik bi baizik ez dira hura fabrikatu duen obreroarentzako. Adidasen kamiseta batek balio ditzakeen 85 euroetan proportzioa are kaxkarragoa da: azpi-kontratak beharginari 60 xentimo ordaindu dizkio. Kontrastean, markek kolpe bakoitzean 25 euro irabazi dituzte.

Soldatetan marka handiek ordaintzen duten zatia txikiagoa da babesletza eta marketinean pagatzen dutena baino, produktu bakoitzeko 3-4 euro inbertitu baitute horretan. Akziodunen etekinen paraleloan handitu dira esponsorizazio aurrekontuak ere. Europako hamar futbol klub nagusien babesletzan 400 milioi euro gastatu zituzten konpainiek 2015ean eta handitzen jarraitzen dute.

Eskulana, alderantziz, gero eta gehiago merkatzeko ahaleginean segitzen dute, produktuaren osaketan ahalik eta zati txikiena eduki dezan. Dinamika hori ez da eten, nahiz eta azken urteotan marka horien lan politikak salatuz kanpaina gogorrak egin zaizkien.

Txina garesti samar bihurtu zaigu

Badira hogei urte argazki deigarri batzuetan azaldu zirela Pakistango umeak lurrean eserita Nike markako baloiak josten. Gero 2000ean Nike bezala Adidas Indonesian azpi-kontrata bidez lanerako haurrak ari zirela erabiltzen zabaldu zen, 15 orduko lan aldien trukean hilabeteko 50 euro baino gutxiago ordainduta. Geroztik, presioaren poderioz, auditoriak eta arau sozialak onartu zituzten multinazionalek.

Baina *Basta!* eta *Alternatives Economiques*eko dosierek erakutsi dutenez, bake sozial asmo horiei gaina hartzen diete berehala elkarren arteko konkurrentzia errukigabearen arauek.

Hamar urtetan Txinako langileen soldata 2,5 biderkatu da, Asiako herrialde bakarra da familia batek bizirauteko behar duen gutxieneko soldatara hur-

"Thanhnien News " hedabide elektronikotik eskuratutako argazkian, langileak Adidas oinetakoak ekoizten Vietnamgo usina batean. Nayla Ajaltounik esan duenez, "Nike eta Adidas saiatu dira beren marka irudia zaintzen, produkzio katean [lan baldintzen] gardentasun gehiago ezarriz. Baina denborak erakutsi du gauzak aldatzeko tartea estua dela: dauzkaten irabaziengatik, marka handiok erraz lortuko lukete lan baldintza onetan ekoiztutako produktuak eskuratu eta saltzea, baina nahiago dute produktuak nork merkeago egin enkantean funtzionatzea".

biltzen: bataz besteko hileroko soldata ia 400 eurotara igo da, bizirauteko gutxienekotzat jotzen den 460etatik hurbil.

Hau, ordea, poztekoa baino kezkatzekoa zaie etekinak eten gabe handitzeko lehian diren multinazionalei. Adidaseko buruak kexu azaldu dira "Txina merkea" bukatzen ari omen delako, eta Nike baitan egindako ikerlan batek ondorioztatu du Txinako soldaten igoera "mehatxu bat dela balio erantsiaren iraupenarentzako".

Nike bezala Adidas hasi dira ekoizpena Txinatik Vietnamera eta hein txikiagoan Indonesia eta Kanbodiara eramaten, nahiz eta Lanaren Nazioarteko Erakundeak dioen horietan langileen eskubideak ez direla babesten.

Vietnamen hamar usinatatik bederatzitan langileek ez dauzkate legez dagozkien oporrak. Indonesian hilabeteko gutxieneko soldata 80 eurokoa baldin bada, hiru lantokitatik batean gatxiago pagatzen zaie obreroei; hirutatik bitan legezko lan orduak baino gehiagoz aritu behar dute beharrean.

Soldata duin baten eta herrialdean dauden soldaten mediaren arteko tartea ere esanguratsua da. Kanbodian familia batek hilabetea txukun –ez Euskal Herriko bizi-baldintzetan, prefosta- bizirauteko behar baditu 229 euro, 115 euro irabazten ditu. Indonesian tartea 209 eurotik 102ra doa, eta Vietnamen 247tik 174ra.

Lan baldintzetan kontatu behar dira osasun arriskuak ere, langileek nozitu behar dituzten pozoi toxikoenak tartean. Kirol oinetakoen ezaugarriak gai kimiko kaltegarriak usatuz lortzen dira: eguzkia jasaten duten tinduak, ura eta hezetasuna jasateko PFC perfluorokarburoak, bakteriei aurre egiteko zilar ioiak, eltxoen kontrakoak... Nikek bezala Adidasek sinatu dute Blue Sign programa, beren hornitzaileen artean gai toxikoak eragozteko, baina ekoizpen katean nork bermatu hainbeste azpi-kontrata egiten ari dena?

Nazioarteko kanpainen azpitik eta gainetik, inork ez du lortu marka handien logika haustea, alegia, publizitate eta babesletzako gastu eta inbertsioak jartzea azpi-kontratetako langileen bizi baldintzen gainetik. Horregatik, *Basta!*-rako artikulua egin duten Germain Lefebvre eta Ivan du Royk esan duten moduan, "Euro 2016rako UEFAk Adidasi eskatu dion baloia Pakistanen ekoiztua izango da, azkeneko Munduko Kopakoa izan zen moduan". ■

David Garnatxo, Landare elkarteko koordinatzailea

«Tomate batekin jendea hunkitu egiten bada, nola ez du zirrara sentituko aldaketa gehiagoren aurrean?»

Iruñerrian badira bi supermerkatu "arraro". Haietan saltzen dituzten produktu guztiak ekologikoak dira eta soilik bazkide direnek eros ditzakete. Eta "arraroena" da etekinaren %80 ekoizleentzat dela. Landare du izena ekimenak, duela 24 urte sortu zen eta egun bi denda ditu, bat Iruñeko Arrotxapea auzoan, bestea Atarrabian, eta 2.600 bazkide. David Garnatxo barazki saltzailea Landare elkarteko koordinatzailea da.

Reyes Ilintxeta
@Reyesllintxeta
ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Zuzenbidea ikasi zenuen Opuseko unibertsitatean. Nolako bizipena izan zen hura?

San Fermin ikastolatik eta D ereduko institutu batetik etorrita, aldaketa sekulakoa izan zen. Gogoratzen dut ikasgelara iritsi eta lehenengo egunean José Zafra Opuseko irakasle ezagunak fitxa bat eman zigula betetzeko, zein hizkuntza hitz egiten genituen adierazteko, "baina ez jarri bable edo *vascuence* bezalako dialektorik, mesedez". Bat batean neure burua leku arrotzean sentitu nuen. Baina, egia esan, gero unibertsitatean nik bezala sentitzen eta pentsatzen zuen jendearekin oso harreman onak izan nituen, eta nire lagun on asko han ezagututakoak dira. Han ezagutu nuen nire bikotekidea ere.

Politikagintzan ere ibilia zara.

Landaren hasi baino lehen gauza asko egin dut. AEKn irakasle izan nintzen, adibidez, eta horretan nenbilela Laboral Kutxako ikasle talde bati eskolak ematea egokitu zitzaidan. Haien bidez jakin nuen han lan egiteko aukera zegoela. Probak egin eta hartu ninduten. Lau urte eman nituen han. Ondoren politikan aritzeko liberatu nintzen, sortu berria zen Nafarroa Bai-n aritzeko, hain zuzen ere. Handik gutxira Aralar taldearen sorreran hartu nuen parte. Gustura ibili eta asko ikasi arren, laster konturatu nintzen hura ez zela egon nahi nuen tokia, horregatik dena utzi nuen. Indiara joan nintzen eta bost hilabeteren ondoren itzuli eta aholkularitza lanak egiten hasi nintzen han eta hemen. Orduan Landare ezagutu nuen. Asko eta azkar handituz zihoan elkartea zen eta enpresa ikuspegitik esku-hartze sakon baten beharra zuen. Alde batetik, langileen eta Landereren arteko harremana ordenatu beharra zegoen, eta bestetik, bezeroari eskaintzen zitzaiona eta barne funtzionamendua parametro profesionaletan jarri behar ziren. Hori egin genuen eta hura bukatutakoan, 2008an, eskaini zidaten hemen jarraitzea. Harrez geroztik hemen nago, oso gustura lanean.

Zein da Landareren ekarpen handiena?

Injustizia ikusten bada inon, mundu osoko janariaren banaketan da eta horren aurrean Landarek beste eredu bat proposatzen du: janariaren banaketaren ardura ez dadila egon pertsona edo akziodun talde baten eskuetan, banaketa egin nahi duen jende multzo batengan baizik. Filosofikoki eta praktikan hori da gure ekarpen handiena.

Nola sortu eta garatu da elkarte hau?

1992an sortu zen. Herritar batzuek modu ekologikoan jan nahi zuten, baina elikagaiak aurkitzea ez zen erraza, eta gainera, prezioak oso garestiak ziren. Gaur egun produktu faltarik ez dago, hornidura ziurtatua dago, baina orain hausnarketa beste bat da: nola lortu produktuak merkatzea, ekoizleek prezio justu bat jasotzen dutela ziurtatuta.

Bazkideok amankomunean baloreak ditugu. Ikasten ari gara, baina gu ez gara enpresariak. Elkartea gara. Formula horrek balio digu jende guztiaren eskubide eta betebeharrak berdintzeko, eta hori da gure funtsa. Erabakiak hartzeko mementoan berdin balio du urtean euro bateko erosketa egin duen pertsonaren iritziak edo mila euro gastatu dituenarenak. Hori oso garrantzitsua da. Funtsean, hori da Landarek eskaintzen duen gauzarik hoberena. Ez da kontu estrategikoa, gure pentsaera baizik, eta filosofia horrek gauzak egiteko beste modu bat ahalbidetzen du.

David Garnatxo Dubrot

1973, Iruñea

Abokatua, ekologista, politikan aritua eta gaur egun barazki saltzailea eta Landare elkartearen koordinatzailea. Produktu ekologikoen prezioak merkatzen saiatzen dira, aldi berean ekoizle eta kontsumitzaileen artean harreman justuagoak eraikitzen.

Orain prozesu batean murgilduta zaudete.

Duela urte eta erdi hasi genuen. Egin beharrekoak denon artean banatzea hobetsi dugu. Horretarako Landareren erabakitze eta botere guneak aldatzen ari gara. Koordinazio mahai bat eratu dugu erabakiak hartzeko, eta ikasten ari gara denon artean ardurak banatzen. Oso zaila, baina arras aberasgarria da. Landaren orain dela zortzi urte lau langile ziren, denera bi lanaldi oso betetzen zituztenak. Orain 25 lanaldi oso egiten dira. Hazkundea oso handia izan da lan taldean, bazkide kopuruan eta fakturazioan. Urtean 3 milioi euroko fakturazioa dugu. Hemen soldata apalena 1.100 eurokoa da eta altuena 1.500ekoa, eta sei aste eta erdiko oporraldia dugu.

Gauzak aldatzeko besteak behar ditugula ulertzen da Landaren. Elkarbizitzak aberasten gaitu. Hemen barazkizaleak, animalistak, beganoak, oro jaleak, gustura bizi gara elkarrekin. Tomate batekin jendea hunkitu egiten bada, nola ez du zirrara sentituko aldaketa gehiagoren aurrean?

Gu oso apalak gara, azken finean barazki saltzaileak garelako. Ni oso harro nago lanbide honetaz.

Nola funtzionatzen du elikagaien merkatuak?

Merkatal gune handiak zabaltzen dira oso modu erasokorrean. Prezio oso baxuak eskaintzen dituzte hasieran eta hiri edo eskualde bateko merkatua apurtzea lortzen dute. Denda txikiak itxiarazi eta banatzeko beste sistema batzuk inposatzen dituzte, oso gutxi berrinbertituz toki horretan. Basamortuak sortzen dira horrela.

70eko hamarkadatik aurrera janaria leku batetik bestera eramaten da munduan barna etengabe. Hori ez da ekologikoa. Mundua horretara doa guk gelditzen ez badugu. Badakit oso zaila dela, baina beste biderik ez dago. Sortu behar dira formulak hiri eta herrietan elikagaien banaketarako alternatibak bilatzeko.

Europan ekoizleak gero eta gutxiago dira eta horrela jarraituz gero desagertu eginen dira. Duela 40 urte gure diru sarreren %30 gastatzen genuen elikaduran. Egun, diru gehiago irabazi arren, %15 baino ez dugu jaten gastatzen.

Bestalde, munduan ekoizten den janariaren %50 botatzen da. Zazpi pertsonatik batek gosea pairatzen du.

Lanak diruaren interesei men egiten die eta hori ez da sanoa ezta logikoa ere. Gainera, boteretik beti bilatu izan da ekoizleak ahalik eta gehien diruz laguntzea, eta horrek arazo handia sortu du: nekazaritzaren eta abeltzaintzaren helburu nagusia ez da jendeari jaten ematea, diru-laguntzak eta etekinak lortzea baizik.

Norberaren interesez gain pentsatu beharra…

"Ahal duenak bere burua salba dezala" ideiaren aurrean, goazen bertako oinetakoak, janaria, jantziak, kontsumitzera eta munduko beste pertsonekin partekatzera, eta gauza asko aldatuko dira. Ez da gizaki berria sortuko, baina hobera aldatuko da, eta horrek sorraraziko du ilusioa, emozioa eta konpromisoa. Guk hori sentitzen dugu Landaren. Jendeak Landare beretzat hartzen du, eta horrek onura asko ekartzen digu. Hemen 2.600 familia gara eta inork ez du lapurtzen, adibidez. Hau bezalako esperientziekin elkartuz osatzen ahal da eredu berri bat.

Batzuk ezin dute aukeratu zer jaten duten.

Toki askotan hala da eta hemen ere azken urte hauetan jendea ikaragarri pobretu da. Euskal Herrian agian ez dugu horrenbeste sumatzen, baina Estatu espainiarrean edo Grezian ikaragarria da gertatzen ari dena. Grezian gertatutakoak benetako beldurra ematen dit: Estatu batek aurre egin nahi izan dio sistema honi eta ezin izan du ezer egin. Hauteskundeak eta erreferendum bat irabazita ere, ez du deus egiterik izan, agintzen dutenek ez diotelako uzten. Esperantza hil da.

Horren aurrean erresistentziarako eta proposamenerako bide bakarra alternatibak sortzea da, eta diskurtsotik ekintzetara pasatzea. Hanka sartzearen beldur ez dugu izan behar.

Jendea ahaldundu behar da?

Bai. Zaila da jendeak erabakiak hartzea. Hori ikastea da gehien kostatzen zaiguna. Ikasketa eta kultura maila inoiz baino altuagoa da eta orain egiten ez badugu, noiz eginen dugu, pobretzen gaituztenean? Konfort eremuetatik atera eta arriskuan jarri, uste dugun hori ez delako benetako konforta. Ongi egotea beste batzuen bizkar lortu behar badugu, ez da egiazko konforta.

Iraultza

"Vandana Shiva ekofeministak dio: 'Inork iraultza egin nahi badu, hiru aukera ditu egunero: gosaltzerakoan, bazkaltzerakoan eta afaltzerakoan'. Bada, goazen mundua aldatzera. Apaltasun osoz, goazen gure inguruan hori egitera. Horrela aldatuko dira harremanak eta ekonomia".

"'Ahal duenak bere burua salba dezala' ideiaren aurrean, goazen bertako oinetakoak, janaria, jantziak, kontsumitzera"

Jendearen osasuna ere kaltetzen ari da janariaren banaketa sistemaren ondorioz?

Gure gizartean galera nutrizionalak ditugu nahiz eta egunean hiru aldiz jan. Jende asko gaixo dago luzerako prestatutako janari pobrea jateagatik. Arazo horren oinarria pertsona edo etekinaren arteko dikotomia da, etekinaren alde egiten dute janariaren banaketaz arduratzen direnek. Ez da sistema demokratikoa, oso jende gutxiren eskuetan dagoelako. Enpresa gutxi baina oso handiak.

Mundu osoan gauza antzekoak jaten dira, enpresa handiek erabakitzen dutelako guk zer jan behar dugun. Gauza bera gertatzen da, adibidez, arroparekin. Aniztasuna galtzen da eta angelu bakarretik begiratzen zaio ekonomiari. Hezkuntza ere horrelakoa da. Pertsonak zirkulu horietan integratzeko prestatzen ditugu.

FAO Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak dio joan den mendean munduko nekazaritzaren aniztasuna %75 galdu dela. Arroz bera ekoizten da Indian, Argentinan edo Arguedasen.

Kontsumo arduratsua bultzatzen duten gero eta talde gehiago dago. Hemen jendea bereziki aktiboa da?

Euskal Herrian oso azkar pasatu gara nekazal gizartetik hiritar gizartera, eta gainera oso masifikatuta. Jendeak erreferentzia batzuk ditu eta inguruan ez ditu aurkitzen. Horrez gain, badira jokamolde batzuk besteekin gauzak egitera lotzen gaituztenak, auzolana, adibidez. Gu orain beste elkarte batzuekin ari gara elkarlanean prezioak jaisteko eta harreman justuak ezartzeko. Saltzen dugunaren %70 kanpotik ekartzen

dugu, Espainiatik eta Europa osotik. Baionako Otsokop kooperatibarekin eta Oreretako Labore taldearekin hasi gara lanean. Helburua da ahal den merkeena saltzea, eta gainera, kontsumitzaileek jakin dezatela nondik datorren dena, eta zenbat irabazi duen ekoizleak.

Gaur egun arazoa da ekologikoaren merkatua merkatu konbentzionalaren eskema kopiatzen ari dela. Duela zenbait urte amaranto ogia saltzen genuen, adibidez. Ogi hori Burlatan egiten zen, Belgikara eraman eta gero handik ekartzen genuen. Esan ziguten hori horrela egiten dutela markak kontrolatu behar duelako banaketa prozesu osoa. Orain, noski, ez dugu ogi hori saltzen.

Janaria erosteaz gain, zer egiten dute bazkideek?

Landare sortu zenean oso pobrea zen eta auzolanaren beharra zuen lan guztia egin ahal izateko. Orain identitate marka bezala gelditu da eta bazkide guztiek urtean bi orduko lanaldia egiten dute Landaren: hitzaldiak, tailerrak, ikastaroak, ezagutza elkarbanatzeko saioak (izarrak begiratu, yoga, gimnasia, bizikletak konpontzeko saioa, janariaren inguruko saioak...), dena doan egiten da eta oso lagungarria da bestelako harremanak sustatzeko.

Aldaketaren gobernuak urtea bete du Nafarroan. Zein da zure balorazioa?

Ni oso pozik nago aldaketarekin. Gure sektorean gauza batzuk hasi dira nabaritzen eta beste batzuk oraindik ez. Dena den, niri beldurra ematen didana da eztabaida soilik euskararen inguruan gelditzea. Euskara izatea aldatu behar den gauza bakarra. Bestelako gizarte eredu bat, euskara barne duena, planteatzeko garaia da. Horretan oso motel dabiltza.

Ausardia behar da. Haur eskolen aferan, adibidez, garrantzitsua da euskarazko eskola aukeratu ahal izatea, baina kontuan hartzekoa da ere eskola publikoak oso-oso garestiak direla eta gainera plaza gutxi daudela. Iruñeko Udala oso lan txukuna egiten ari da, baina gai honetan, adibidez, nik eskatuko nioke begirada zabaltzeko. Gehiengoaren kontra eraiki den Nafarroa honi buelta eman behar diogu, euskaltasuna amankomuneko tokian kokatuz. ■

Azken hitza:
Landare eta euskara

Harreman hori normala da. Hemen ez da inor behartzen ikastera, noski, baina egia da normaltasun osoz bizi dela euskararen gaia. Aniztasun ideologiko handia dago gure bazkideen artean. D eredura eta Opuseko ikastetxeetara haurrak eramaten dituzten familiak badira, eta ulertzen dugu erdara eta euskara gure lanbiderako behar direla jakin. Erakundeek ez dute batere laguntzen. Guk nahi genuke etiketa guztiak euskaraz eta erdaraz egotea, adibidez, eta ez dago organismo publikorik horretan laguntzen duenik. Behin horretarako laguntza eman zigun Hernaniko Udalak. Hornitzaileei bi hizkuntzetan etiketatzea eskatzen diegu, horretan proaktiboak gara. Ez da soilik filosofia kontua, gehiago salduko dutelako baizik. Euskaraz dakienak hobeki ulertuko du eta ez dakienak eskertuko du aniztasunaren alde lan egitea.

Europar Batasuna berriro bidegurutzean

Herbehereek Europar Batasunean (EB) sartzeko balizko ukrainar hautagaitza bati ezetz esan diote erreferendumean, bien bitartean, Austrian, hautagai aurrerakoi moderatuak ozta-ozta irabazi ditu hauteskunde presidentzialak eskuin euroeszeptikoaren aurrean.

Bruselak hautetsontzietan maiz jaso ditu zaplaztekoak, besteak beste, Danimarkan, Erresuma Batuan, Herbehereetan, Frantzian, Irlandan edo Grezian. Jaso ez dituenean, adibidez Lituanian, EBn sartzeko burutuko erreferendumean, inork gutxik jarri zizkion tatxak plebizitu autoritario moduko formatuari: ideologia eta propaganda bakarra hedabideetan, legeak aldatu ziren bi egunetan bozkatu ahal izateko, eta azkenik, bigarren bozketa egunean partaidetza minimora iristeko modurik ez zegoela ikusita, herrialdeko enpresari handienak hedabideetan zabaldu zuen pasaportean bozkatu izanaren zigiluarekin etortzen ziren herritarrei bere hipermerkatu eta supermerkatuetan txokolatea, garagardoa edo garbitzeko xaboia banatuko zitzaizkiela. Mendebaldearen esanetara ez dagoen beste herrialde batean hori gertatuko balitz, Europar Batzordeak eta hedabideok 24 ordu emango genituzke estatu hori estigmatizatzen.

Baina erreferendumean ez bada baiezkoa ateratzen, bada beste bide bat, berriro egiten da baietz atera arte edo zuzenean Europar Konstituzioa Lisboako tratatuan mutatzen dugu konstituzioaren alde ilun eta neoliberalenak inposatuz eta onura federalista eta demokratizazio bidekoak baztertuz. Erantsi horri azken hau ez dugula utziko bozkatzen, ez baita konstituzioa. Imajinatu bere garaian Hugo Chavezek konstituzioa aldatzeko galdu zuen erreferenduma eta gero, bigarren erreferendum saiakera egin izan balu.

Asier Blas
EHU-KO IRAKASLEA
@AsierBlas

EBk Syrizak Grezian garaitu ostean izerdi gehiago bota behar izan zuen, baina tira, indarkeria militarra izan ezik, dauden gainontzeko indarkeria mota guztiak erabili ostean oinperatu zuen. Oraingoan ekainaren 23an Erresuma Batuak bere sezesio erreferenduma egingo du eta kasu horretan edozein emaitzak kaltetuko du EB erreala

EBk Syrizak Grezian garaitu ostean izerdi gehiago bota behar izan zuen, baina tira, indarkeria militarra izan ezik, dauden gainontzeko indarkeria mota guztiak erabili ostean oinperatu zuen. Oraingoan, ekainaren 23an Erresuma Batuak bere sezesio erreferenduma egingo du eta kasu horretan edozein emaitzak kaltetuko du EB erreala. Erresuma Batua estuen klubean geldituko balitz, oso baldintza partikularretan izango litzateke, baina seguruenik Ekialdeko herrialde batzuek antzeko estatus eskaera egingo lukete. Irtengo balitz gauzak ez lirateke gehiegi aldatuko ikuspegi materialetik, Norvegia edo Suitzari so egitea baino ez dago. Azken batean, azkeneko urteetan EBk ez da gai izan proiektu propio bat garatzeko eta bazkideei balio propio erantsia eskaintzeko. Erresuma Batua beti izan da barne saboteatzaile bat, askotan AEBek hori erabili dute europar federatze prozesua oztopatzeko. Horregatik, Obama oso haserre dago Erresuma Batua EBetik atera ahal izateko posibilitatearekin.

Halere, EBren noraeza Ekialdeko herrialdeetara zabaltzearekin etorri zen. Hauek ez ziren europar federalista zaleak, baina Mendebaldeko blokean sartzeko bidesari bezala ikusi zuten integrazioa. Une honetan, berriz, badira zenbait herrialde ez dutenak garbi ikusten zertarako balio duen EBn egoteak, ez bada soberania galtzeko. Adibidez, 2004tik gertatu diren hedapen guztietan lehenengo NATOko kide bilakatu behar izan dira herrialdeak, ondoren EBko kide bilakatzeko (Z ipre eta Malta salbu). Gauzak horrela, Erresuma Batua EBetik aterako balitz, eragin nagusia sinbolikoa litzateke. Europa Ekialdeko herrialde batzuek ikusiko lukete posible litzatekeela EBtik kanpo egotea eta Mendebaldearen parte izatea NATOren bitartez. Horrek EBren txikitze bat ekarriko luke, eta batez ere, AEBen eraginaren gutxitze bat. Agian jokaleku horretan EB indartu, trinkotu eta autonomoago bat osatu zitekeen, hortik dator akaso iparramerikar eliteen beldurra *Brexit*ari. ■

Umoreari buruzko solasaldia

Angel Erro
IDAZLEA
@angelerro

Zigor: Egun on, Luzio. Ia ez zaitut ezagutu ere egin. Bizarra utzi duzu eta kilo dezente galdu ere bai. Ene, beste bat ematen duzu-eta. Lehen luze zinen, baina orain are *luzio.*

Luzio: Egun on, bai, Zigor. Eskerrak, ba, argalduagatik ezagutu nauzun, bestela, orain arte egin didaten hitz jokorik onena entzun gabe igaro beharko bainuke eguna.

Zigor: Serio ari zara? Ba, oraintxe bururatu zait, hitz egin ahala. Benetan ez nekarrela presturik. Batek daki holakoak nondik etortzen diren. Egia esan behar badizut, burua egiten nuen zu ez zinela oso hitz joko zalea.

Luzio: Umorearen defendatzaile sutsua naiz ni. Inoiz iritsi naiz pentsatzera txistea eta olerkia familia bereko bi ahaide baino ez direla, hala batean nola bestean elementuen disposizioak duen berebiziko garrantziagatik eta osagai bakar bat bere tokitik kentzeak ekar dezakeen osokoaren suntsiketagatik. Txistean edo poeman ez luke soberako ezer beharko. Txistea (eta haren baitan hitz jokoa ere) hitzezko umorearen unitate minimoa da, literaturarena olerkia (edo bertso-lerro betegin bat) den bezalaxe.

Zigor: Horregatik, seguruenik, hain txiste kontalari txarra naiz. Bat kontatzen hasten naiz eta graziadun eztena, behar duen tokian gabe, aurreratzen dut edo desaktibatzen dut lehenago esandako zerbaitekin. Askotan pentsatu dut buruz ikasi behar nituzkeela familia afarietan botatzeko (ohitura handitan baitu nire neskaren familiak bazkalondoan istorio barregarriak elkarri kontatzeko), eskolan ikasarazten zizkiguten olerki edo bertsoen moduan. Nire aitaginarrebak, esaterako, beti berberak kontatzen ditu eta beti hitz bakar bat ere aldatu gabe.

Luzio: Zu txiste kontalari txarra zara, txistea azaldu nahi duzulako, baina errezitatu behar zenuke, bai. Poema bat ere ez dago azaltzerik. Nik esan nezake Sandro Pennak baduela olerki bat, non esaten baitu gazte izatea beti zentzumenetara isurita egoteaz ez damutzean datzala, eta zu ados egon zintezke, baina nik olerkia hitzez hitz errezitatu arte ez zenuke benetako zirrara sentituko. Poema eta txiste on batek beti du zerbait gogoangarritik.



Antton Olariaga

Zigor: Zuretzat, beraz, zirrara eta algara gauza bera dira?

Luzio: Gaur baietz uste izatera lerratuko nintzateke. Emozio bat hitzen disposizio egoki (edo, nahiago baduzu, eder) eta ezinbestekoak eragina. Honek ez du kentzen, poesia molde guztiak estimatzen ez ditudan bezala, umore klase batzuek beste batzuek baino balio gehiago izateak. Umore kontzeptuala (bi ideien arteko talka agerrarazten duena) edo egoerazko umorea (ohitura baten absurdua bistarazten duena) askoz nahiago dut hitzekin jokoa egiten duen umorea baino. Beste hizkuntza batera itzuli ezin daitezkeenak hobe niri ez konta.

Zigor: Esango nuke jarrera esnob xamarra dela, autogorroto apur bat erakusten duena.

Luzio: Ez dut inor sutara botako hitz joko bat egiteagatik. Baina, nire ustez, a) irudimen eskasagoa erakusten du, b) beste umore motetarako bidea zailtzen du, c) halako kratilismo merkearen arriskua dakar, eta d)…

Zigor: Aber, aber, aber. Kratilismo?

Luzio: Bai. Platonen solasalditik (Kratilok uste du hitzak eta beren esanahi sakona estuki lotuta daudela). Hitz jokalariak bi hitzetatik berri bat sortzean –"hago *hitzilik*", demagun, edo *euskahalduna*– hor errebelazioren bat bilatzeko tentaldia izan dezake. Poesia txarrean bezalaxe. ■

Ertzaintzaren (edo polizien) deserrotzeaz

Joxe Iriarte, *Bikila*
IDAZLEA

Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetza Idazkaritza Nagusiaren eskariz, Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Institutuak *Ertzainek eta haien familiek ETAren mehatxuaren ondorioz jasan duten bidegabekeriari buruzko txostena (1990-2011)* egin du. Ondo deritzat gatazkak, eta ETAk konkretuki, sorturiko sufrikario osoa aztertzea eta ezagutaraztea.

Nago baina, azken urteetan onddoak bezala sorturiko institutuek eta idazkaritzek arreta gehiago jartzen dietela bidegabekeria mota batzuei besteei baino, egilea nor den arabera betiere. Batean eta bestean jarritako dirutza edo erabilitako bitartekoen desoreka nabarmena da gainera. Hor dabiltza zenbait ikerle boluntario, zailtasunak zailtasun eta musu-truk, memoria historikoa lantzen edo torturaren mapa ikusezina aztertzen –Europak zortzigarrengoz zigortu du Espainia, tortura ez ikertzeagatik–, eta beste batzuk, berriz, baliabide guztiekin hileroko soldata jasotzen.

Areago, oso deigarria egiten zait zein arreta gutxi jartzen zaion, terrorismoaren aitzakiaz, urteetan ezarri eta gorpuztu diren lege eta jarrera errepresiboen ezabatzeari, salbuespenekoak omen zirenak, baina betiko geratu direnak. Lege horiek ez dute eraginik bizikidetzan? Honezkero badira hauxe diotenak: ETA desagertu da baina orain arrisku *jihadista*ri aurre egin behar diogu.

Jarrai dezagun Ertzaintzak urte horietan izandako deserrotze, ikusezin eta gainerako arazoekin. Bistan da, tamalez hori dena gertatua dela, baina nago ere, dena ez dela ETAren eta bere "aldeko"en erantzukizuna. Ertzaintzak bere jarduerarekin badu bere ardura –zer esanik ez beste bi polizia motak– deserrotze eta gizarteratzeko arazoekin. Duela pare bat urte Kukutzaren gatazkaren inguruan orriotan gogor salatu nuen Ertzaintzaren jarduera.

Ertzaintza (polizia guztiak) injustizia ugari eragiten duen sistemaren adar bat da. Horrek ezinbestez gizartearen zati batekiko deserrotzea, are, areriotasuna, dakarkio. Galdetu greba batean astindutako langileei zeinen alde egiten duen Ertzaintzak. Askotan, gainera, ordenak betetzetik baino harago joan da. Gogoratzen dut AHTren aurkako manifa baketsu batean atxilotutako lagunak Auzitegi Nazionalaren eskuetan jarri zituela Ertzaintzak. Antzekoa munduko beste poliziei buruz. Los Angelesko polizia buruak sarri kexu dira, herritarrek sistemarekiko amorrua beraien aurka bideratzen dutelako. Frantzian gertatzen ari diren istiluetan ere, polizia askoren kexuak entzun ditugu. Ez omen dituzte merezi manifestarien herra eta erantzun bortitza. Zer esan *Mossos d´Esquadra*ren jarduerari buruz. Batzuek eta besteek, ordea, ez diote galdetzen beren buruari ospe txar horren zergatia. Hor datza gakoa. ■

Itsas Mendi

Oihana Etxebarrieta
KAZETARIA
@BetaurrekoMorea

Kultura espazio eta proiektuen inguruko eztabaida ez da atzokoa. Kultura onargarri eta instituzionalak, egunerokotasunean bere baliabideekin musika, antzerkia... programatzen ari dena jaten duela badakigu. Isunez ito nahi dituzte, bestela entzun ezingo genituzkeen taldeak ekartzera ausartzen direnak; itxi egiten dituzte kultura alternatiboa praktikatu nahi dutenak. Tamalez, *txikiarekin* lerratzen garela uste dugunok ere, hiriburu-zentrismoan (EAEko hiriburu-zentrismoan batez ere) erortzen garela esango nuke. Ez diegu maila eta begirada interesatu bera eskaintzen herri txikiagoetan lanean ari direnei.

Astra, Katakrak, Mikelazulo... Kasu honetan, Urruñako (Lapurdi) Itsas Mendiri eta bere langile eta boluntarioei omenaldi txiki bat egin nahiko nieke, eman dizkidaten opari guztiengatik. Zinema independentea programatzen duten guztiak bezala, larri, prekario eta laguntza eskasekin egiten dute aurrera bertan. Baina zinemarekiko maitasun, goxotasun eta indarraz ekartzen dizkigute bestela ezagutu ezingo genituzkeen piezak. Jatorrizko hizkuntzetan eta frantsesez azpititulatuta Palestinako, Indiako... eta Euskal Herriko filmak ikusi ahal ditugu. Bizirik jarraitzeko jendea behar da ordea. Ba al zatoz? ■

Donibanez

Anuntxi Arana
ANTROPOLOGOA

Aspaldiko ekainaren 23 batean, Espainiatik etxerakoan, trenak Euskadiko muga zeharkatu zuen iluntzean eta suak ageri ziren eskuin-ezker, herri guztietan. "Magikoa zela" esango genuke orain; eta hala izan da beti, nahiz, antzina, magiaren zentzua ez zen hain lirikoa, oso pragmatikoa baizik, errealitatea baldintza zezakeen jarduera.

Festa lardaskatzaile iruditzeko arriskuan ere, esan behar da Donibane gaueko alamartxoetan ez zela eguzkia gurtzeko edo bere ibilbidean laguntzeko asmorik nabaritzen. Suak ez ziratekeen ere pena-doloreez gabetzeko eta traste zaharrak botatzeko erraustegiak: trasteak birziklatu egiten ziren gehienak eta suen helburua izaki kaltegileak suntsitzea zen batez ere. Gosea eta eritasuna ekartzen zituzten gaizto eta zitalak oro, harri erauntsi eta ekaitz egileak, begizko jaurtitzaileak, horiek akabatu nahi zituztela aldarrikatzen zuten, bai hitzez eta bai jestuz, "apoak eta sugeak erre, garia eta artoa kutxan gorde" kantatuz, sorgin itxurako panpinak errez.

Ideiak iraun du: maiatzean, Frantziako lan erreformaren kontrako manifestariek, Albi hirian, su eman zioten François Hollande eta lagunen erretratuei, gaiztaginak direlakoan. Kiskaltze sinbolikoak, beharrik, garai batean egiazki erretzen baitziren ustezko sorginak eta, XIX. mende arte, sugeak, katuak eta beste deabruzko animaliak.

Ideiak iraun du: maiatzean, Frantziako lan erreformaren kontrako manifestariek, Albi hirian, su eman zioten François Hollande eta lagunen erretratuei, gaiztaginak direlakoan

Pragmatismoak ez zien jendeei galarazten suen ederraz gozatzea eta jokoetan loriatzea. Orozkon, soroetara gurutze babesleak plantatzera joaten zirenean, suzi piztuak eramaten zituzten eskuan eta firrindaka erabiltzen zituzten, txinpartazko gurpilak ateratzeko moduan. Eta dena bukatutakoan, pozik itzultzen ziren etxera, erritoa ondo bete-eta, uzta ona lortuko zuten itxaropenez.

San Joan gauak eta egunak daukaten aparteko bertutea landare eta uretara ere pasatzen da. Irudiz ez eguzkiak emana, hura ageri baino lehen batu behar baitira belarrak, edo berdin ihintzetan ihalozkatu. Txarrerako baliatzen omen zuten sorginek bertute hori, eta gau osoan ibiltzen ziren ukendurako gai pozoitsuak nola bildu. Jende onek tiroz eta kanpai hotsez uxatzen zituzten. Eta gaur egunean, alamartxo osasungarriaren gainean jauzi egiten dute; baita kean pasatzen ere lore-sorta, indarrez areagotu eta ate aurrean ezarririk, etxea zain dezan.

Noizbait Elizak onartu zituen errito horiek eta maiz bedeinkazioa gaineratu zien. Askoz geroago, *new age* iragan da ororen gainean eta xedeak desmaterializatu dira: gosetik libratu eta ongizate zoriontsua bilatzen da nagusiki. Eta horrela menderik mende, noiz bil eta noiz utz, egundaino iritsi da Donibane jaia, guztien pozgarri eta urte askotarako. ■

www.araba.eus

EUSKARA
kolore bizia!

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKAL INSTITUZIOA

SORTUKO AHAL DA!

Euskal Departamendua aldarrikatzetik Lurralde Kolektibitatea aldarrikatzera pasa ziren Ipar Euskal Herriko herritarrak. Ez bata ez bestea, Herri Elkargoa (HELEP) izan daiteke tokiko euskal herritarren instituzio politikoa. Lehenbiziko bi aldarrikapenak lortzea ezinezkoa iruditzen zaigu, egungo egoera soziopolitikotik begiraturik. Herri Elkargoa berriz, urrats handia izan daiteke berezko euskal instituzioa lortzeko. Tokian tokiko instituzioen arteko harremanen bidez, EAE, Nafarroa eta Iparraldea euskal lurralde bakarrean irudikatzea une historikoa litzateke. Aspaldiko ametsa.

Mikel Asurmendi
@masurmendi
ARGAZKIA: KEPA ETCHANDY

Frantziak ez du inoiz Euskal Herria errekonozitu. Estatuaren egungo instituzioen markoa Iraultza garaian (1789-1799) sortu zen. Aldian aldiko gobernuek, ezkerrekoa izan edo zentro-eskuinekoa, beti errefusatu dute euskal instituzioa. Euskal Departamendua bi mende luzetan aldarrikatu zen, iragan mendeko erdialdeaz geroztik indartuz joan zena. Harrezkero, berezko instituzio baten aldeko ekimen ugari izan ziren. Egungo egoera politikoa 1990. urte hasieran aldatzen hasi zen. Tokiko eragile sozial, politiko eta kulturalek, beste gisa batez hasi ziren pentsatzen euskal lurraldeaz. Garapen Kontseilua 1995ean hasi zen ernatzen, gizarte zibilak bultzatua, Hautetsien Kontseiluaren begiradapean. Egungo Herri Elkargoa osatuko duten sailak orduan hasi ziren diseinatzen, baita Garapen Kontseilua lehen aldiz, Estatua-Erregioa-Departamenduaren eskutik dirua biltzen hasi ere. Lurraldea garatzeko Kontratua deitua orduan finkatu zen. Kontratua sei urterako sinatua izaten da. Hiru aldiz berritu izan da orainokoan. Kontratuaren berezitasunetako bat hauxe da: dirua ez da legez Garapen Kontseiluaren eskutik erabiltzen, aitzitik, gizarteko elkarte eta hauen eragileek beren proiektuak aurkezten dituzte eta Estatuarekin negoziatzen dira zuzenean. *Pays* deitu Kontratuaren izendapenean proiektu asko garatu izan dira.

Pays izendapenaren amaiera

2010ean, Nicolas Sarkozyk Frantziako Lurraldearen erreforma bultzatu zuen eta *Pays* izendapena amaitu zen. *Pays* egituraren bitartez instituziorik gabeko lurraldeek beren beharrizanak garatzeko aukera izan dute. Euskal Herria aitzindaria izan da Hexagonoan.

Garapen Kontseiluaren asmoa Euskal Herriari izaera instituzionala ematea izan da. Hautetsien Kontseiluarena aldiz, ez; ez aurrekoaren gogo berberaz, behintzat. *Pays* izendapena galbidean sartu zenean, Hautetsien Kontseiluko kideen artean ez zegoen kontsentsurik etorkizunari begira. Garapen Kontseilua galtzeko arriskua izan zen 2.010. urtean, gorabeherak eta tentsioak izan ziren, eta duda-muda franko gizarte zibileko eragileen artean. Gizarte zibila ordezkatzen duen Garapen Kontseilua jabetu zen berebiziko indarra biltzen zuela bere inguruan. Hartara, Garapen Kontseiluak herritarrei mezu hau helarazi zien: "Ezin dugu *Pays* egiturak eman duena baino gutxiago onartu".

Garapen Kontseilua orduko lehen ministro Édouard Balladurrekin bildu zen Parisen. Garapen eta Hautetsien kontseiluko kideen aldetik (Parisko diputatuak eta senatariak barne) inoiz ezagutu gabeko ekimenak izan ziren. Jauzi kualitatiboa eman zen, jarrera politikoen aldaketa, bereziki. Euskal Herriko Hautetsi eta Garapen kontseiluak indartsu antzeman zituen Gobernuak, bere gibelean gizarte antolatua sumatu zuen. Gizarte eragileek akuilatua Garapen

"Euskal Konfederazioak eta Baterak 7. Deiadar manifestazioa deitu zuten iazko urrian. Milaka lagun bildu zen Herri Elkargoaren eta euskararen alde Baionan.

Kontseilua harago joateko prest agertu zen, euskal lurraldearentzat instituzioa ezartzeko eman beharreko urratsak negoziatzeko indartsu.

Indar erakustaldi gisako hark, "bake moduko bat ekarri zuen" Iparraldean. Frantziako Lurraldearen erreformaren "erasoa" aurrean, Garapen eta Hautetsien kontseiluen arteko hurbiltze gisako bat eman zen. Eraiki zorian dagoen instituzioa osatzeko estrategiak lantzen lagundu zuten jarrera berriek.

2.010. urtean proiektuaren aldeko lanetan murgildu ziren gizarte eragileak, Gobernuak *ras-le-bol* moduko bat ezarri nahi zuen: "Ikuspuntu juridiko batetik ez dago instituzio berezkorik ematea", erran zuen. Gobernuak Euskal Herria antzinako herrialdeen artean kokatu ohi du, euskal aldarrikapena Frantziako ordenamendu juridikoak eskaintzen duenaren markotik at ezarri du betidanik. Garapen eta Hautetsien kontseiluak eta gizarteko elkarteak negoziatzeko prest zeuden hala ere. Hartara, 2.011n, Estatuak berak gidaturik, eragile guztiak bildu zituen. Gizarte zibila eta hautetsiak proiektu kolektibo bat sortze bidean jarri zituen.

Lurralde Kolektibitatea

Estatuak eskainitako aukera ez zen aldarrikapenetan sartzekoa, edukietan baizik. Galdera nagusia hauxe izan zen: "Zer nahi dugu Euskal Herriarentzat?". Eragileak zortzi gairen inguruan ados jarri ziren: ekonomia, turismoa, laborantza, kultura, hizkuntza, etxebizitza, garraioa eta mugaz gaindikoa. Arlo horiek oinarri harturik, Lurralde Kolektibitatea deitu zioten ekimen berriari. Frantziako Konstituzioan badago artikulu bat, Kolektibitate espezifikoak sortzeko aukera ematen dituena. Adibidez, Paris hiriburua. Kolektibitate espezifikoa da, departamendu bat eta hiri bat elkargo batean biltzen dituena. Korsika da bigarrena. Hirugarrena Lyon da. Azken honek departamendua eta aglomerazioa baterazi ditu. Euskal Herriko instituzioaren aldekoek formula hori onetsi zuten. Bi hilabeteko lanetan, beldurrik sortu gabe aritu ziren, isilean. Ezkerra, eskuina eta zentroaren kontsentsua bilatu zuten, baita lortu ere. Ia aho batez, Lurralde Kolektibitateari bai eman zioten. Garapen eta Hautetsien kontseiluak, Batera plataforma, Baiona-Euskal Herriko Merkataritza eta Industria Ganbara eta gainerako eragileak batu, eta Erreforma Instituzionala ardura duen ministerioan aurkeztu zuten. 2013. urtea zen. Garapen Kontseiluak proiektua aurkeztu zion gizarte zibilari forum batean. Alabaina, Frantziako Gobernuak proiektua blokeatu zuen. Proiektuan engaiatuek diotenez, Gobernuak ez zuen Euskal Herria izena entzun nahi. Gobernuaren hitzetan, antzinako eskema eta betiko aldarrikapenak ziren. Lurralde Kolektibitatea errefusatu zuen. Alta bada, ekimena aurrekaria izan zen. Parisko Asanblea Nazionaleko –Kongresuan eta Senatuan– euskal diputatuek eta senatariak proiektuari atxikimen-

HERRI ELKARGO BAKARRAREN BOZKETEN EMAITZAK (HELEP)



158 herri izan dira bozkatzera deituak. Herri Elkargoaren egitasmoak aitzina egiteko, 158tik 79k alde bozkatu behar zuten, herrien erdiak. Halaber, 295.993 biztanletik 147.997k. 111 herriko etxe alde paratu dira. Horiek 196.932 biztanle ordezkatzen dituztelarik. Aldiz, 47 herriko etxe aurka paratu dira, 101.646 biztanleren ordezkariak. Portzentajetan ikusita: Herriko etxeen %70 eta biztanleen %66 agertu dira elkargo bakarraren alde. Herrien bi herenen babesa jaso du Herri Elkargo bakarrak edo HELEP deitutako ekimenak.

Bitxikeriak: Zuberoako Jestaze eta Eskiula herriak zuberotarrak dira. Biarnoko lurraldeetan daude, ez dira bozkatzera deituak eta ez dira Elkargoan sartu. Lixoze, aldiz, Biarnoko herria da, baina Elkargoan sartu da. 139 biztanle ditu eta aldeko boza eman du.

dua eman zioten. Lehen aldiz, ordura arte zatitua zen Euskal Herria, proiektu baten inguruan batu zen.

Lurralde Kolektibitatearen egitasmoa bertan behera geratu zen. Anartean, gobernu aldaketa izan zen. Jean-Marc Ayrault lehen ministroak halaxe erran zuen: "Ez dago Lurralde Kolektibitaterik, baina Kontratu berri bat izenpetu daiteke". Premisa bezala hauxe gehitu zuen Ayraultek: "Horretarako elkarrizketa politiko berri bat sortu behar da".

Lehen ministroak berak izendatu zuen egungo Pierre-André Durand prefeta. Prefetak erran zuen "proposamenak" zituela egiteko. Urte bat joan zen, tarteko herriko bozak zirela eta. Garapen Kontseiluko kideek "zer da egungo erreforma?", galdetu zioten prefetari. Hari entzun ondoren, lurraldeen erreforma, herrien arteko erreforma gisa ikusi zuten. HELEP delakoa zirriborratu zuten nolabait. Euskal Herriko hamar Herrien Elkargoak Elkargo bakar batean bildu litezkeela ikusi zuten. Abertzaleek ez zuten proposamena begi onez ikusi. Jende asko eszeptiko agertu zen.

2014an, Garapen Kontseiluak Durand prefetaren bisita izan zuen. Garapen Kontseiluko zuzendari lanetan ari den Philippe Arretzek erran digunez, prefetak erronka edo txantxa gisako bat egin zion Garapen Kontseiluari: "Lurralde Kolektibitatea aldarrikatu duzue, eta Estatuari betetzeko eskatu ere. Baina, gauza al zarete HELEP antolatzeko. Zuen artean moldatzeko?". Prefetaren irribarrean kitzikatzeko gogoa ikusi zuten Garapen Kontseiluko ordezkariek. Prefetak ez zekien nonbait, Euskal Herriko gizartea mende erdi bat ari dela berezko instituzio baten alde buru-belarri, halaber, Garapen Kontseilua duela 20 urte ari dela lanean. Prefetak ez zuen pentsatzen HELEP bezalako ekimena bururaino eramateko gauza izango zirenik. Ekimena abian jartzeko bi baldintza jarri zituen, herrien eta biztanleriaren erdia baino gehiago alde egotea.

Garapen Kontseilua ez da aski baloratua izan gizarte sektore batzuen aldetik. Herritar, elkarte eta eragile askoren ustez, Garapen Kontseiluak lan asko egiteaz gain, ikasi du elkarrekin lan egiten, eragileak eta hautetsiak elkarrekin lanean jartzen. Garapen Kontseiluaren metodoak eta bitartekoak, herritar eta erakundeen sentsibilitateak akordiora eramaten erakutsi duen ahalmena errekonozitu zaio orain.

Garapen Kontseiluko kideak, 2015eko ekainean, HELEP abiarazteko legea bozkatzean, ez ziren guztiz ziur. "Aitzina,

EMAITZAK ELKARGOKA





INFOGRAFIAK: ASIER ITURRALDE SARASOLA

Ipar Euskal Herrian 10 Herri Elkargo daude orain. 2017ko urtarrilean Herri Elkargo bakarrean bilduko dira. Herriko etxe kopuruetan erreparatu dugu, eta irakurketa hauxe egin: 10 elkargoetatik 8 elkargo bakarraren alde paratu dira. Euskal Kosta-Aturri Herri Elkargoa eta Amikuzeko Herri Elkargoa dira aurka. Hain zuzen ere, herri elkargo hauetako hautetsiak dira, ofizialki ez bada halaxe adierazia, Herri Elkargo bakarraren aurkako helegite hierarkikoa jarri dutenak.

Euskal Kosta-Aturri Herri Elkargoa da biztanle gehien biltzen duena. Bidart, Angelu, Miarritze eta Bokale aurka paratu dira. Herri Elkargoari Baiona hiriburuak (Jean-René Etchegaray auzapez izaki) emandako sostengua, sinbolikoa ez ezik, funtsezkoa izan da aurkakoen gotorlekua bilakatu litekeen elkargoaren barnean.

Besteak beste, Angeluko Guy Lafitte, Lüküzeko Barthelemy Aguerre eta Armendaritzeko Lucien Delgue hautetsiak dira orain arte, HELEPren aurkakoen artean beren burua agertu dutenak. Edonola ere, helegite hierarkikoaren atzean 60 hautetsi daudela zabaldu da tokiko hedabideetan.

❱ argia.eus-en mapa interaktibo eta eguneratua

zergatik ez?", pentsatu zuten. Ez zela idealena izango, baina berezko instituzioa lortzeko lehen urrats bezala baloratu zuten. Orduantxe, mundu abertzaleak ulertu zuen bazela jokatzeko partida moduko bat. Funtsean, sortuko dena instituzio politiko bat delako. Hasteko, Euskal Herriko beste instituzioekin lan egin dezakeena. Onarpen gisako bat izan zen.

Garapen Kontseiluak eragile guztiei galdeturik bozkatu zuen eta HELEPren aldeko baiezkoa nagusitu zen. Hautetsien Kontseiluan berriz, gehiengoak alde bozkatu zuen, baina ez kontsentsuz. Hautetsien artean ez da adostasunik inoiz izan. Lanean jarraitu zuten iragan urteko martxora arte; iragan udazkenean bozketa positiboa izan zen. Udaberriko bigarren bozka eman orduko, proiektua aurrera eramatea baimentzen zuen bozaldia ezagutu bitartean, Garapen Kontseiluko kideek informazio asko eta ongi funtsatua eraman zuten herriko etxeetara, hautetsiek beldurrik gabe bozka zezaten. Iazko udazkeneko aldeko jarrera berretsi da udaberri honetan.

» Durand prefetak jarri zituen baldintzak bete ondoren, hau da, herrien eta biztanleriaren gehiengoa alde daudela jakindakoan, Hautetsien Kontseiluko partaide diren 60 hautetsi inguruk helegite hierarkiko bat jarri dute HELEPren aurka

Helegite hierarkikoa

Durand prefetak jarri zituen baldintzak bete ondoren, hau da, herrien eta biztanleriaren gehiengoa alde daudela jakindakoan, Hautetsien Kontseiluko partaide diren 60 hautetsi inguruk helegite hierarkiko bat jarri dute HELEPren aurka. Hautetsi hauek, Euskal Kosta-Aturriko Herri Elkargokoak (Baiona, Miarritze, Angelu, Bokale eta Bidarte) eta Amikuzeko Herri Elkargokoak dira. Hala izanik ere, barnealdeko bi hautetsik (Barthelemy Aguerre eta Lucien Delgue) baino ez dute aurpegia eman.

Herri Elkargoaren desmartxa barne -barnetik segitzen dutenentzat ez da ustekaberik izan. 2015eko udatik horiek ez daude ados. Hautetsien Kontseiluan *escrache* moduko bat egin dute harrezkero era sofistikatuan. Gutxiengoa da, baina ahalmen handiak dituzte. Lobby modukoa da eta presio handia egiten ari dira Parisen. Euren argudioen artean, itsasalde eta barnealdeko herrien eta biztanleriaren artean desoreka dago. Zaila ikusten dute tokian tokiko enpresei ezarri behar zaien fiskaltasuna modu orekatuan ezartzea. Adituek diotenez, normalean helegite administratiboak ez du bide egiterik. Alabaina, helegiteak auzi-prozesal bidean segi dezake aurrera. Hauek lirateke auzi-prozesala abian jartzeko argudioak: "Lurraldea bi partetan banatuta dago nabarmen, hiria eta barnealdea. Itsasaldea gainpopulatua dago eta barnealdea herri txikiz populatua. Hartara, landako hautetsi kopurua handiagoa da, eta desoreka dago".

» HELEPren aldeko abertzaleen esanetan, berau gauzatzea borondate kontua da, baina hautetsi batzuek ez dute Ipar Euskal Herria instituzio bakarrean ikusi nahi

Elkargoa osatzeko batzordea osatu da

Hautetsien Kontseiluko eta gaur egungo hamar elkargoetako kideek parte hartuko dute Herri Elkargoaren osaketan. Haatik, Euskal Kosta-Aturriko kideek lortu dute ordezkaritza zabalena izatea: Euskal Kosta-Aturriko zortzi kide, Hautetsien Kontseiluko lau, Hego-Lapurdiko lau, eta bertze zortzi herri elkargoetatik bina kide. Garapen Kontseiluko eta Auzapezen Biltzarreko presidenteek ere parte hartzen ahalko dute batzordean, baina soilik iritzi emaile gisa. Antza, Euskal Kosta-Aturrik nagusitasuna lortzea, aurka daudenak kontentatzeko moduko keinua izan da, herri kopuruaren desoreka aintzat hartzeko modua. Hedabideetan zabaldu diren berrien arabera 60 hautetsi inguru daude helegite hierarkikoaren atzean, baina ez dute beren burua ezagutzera eman. Batzordean dauden horietako batzuk izan litezke.

HELEPren aurkako helegitea jarri dutenen nahia hauxe izan daiteke: Konstituzio Kontseiluak auzibidea hartzea; honek HELEP osatzeko baliatu den legea deusezta lezake. Garapen Kontseiluan ez dute ezinezko ikusten Konstituzio Kontseiluak epaia berrikustea. Kontrakoak isilean daude, baina teman segitzen dute. Gerta daiteke.

Itxura batez, HELEPren aurkakoek ez zuten espero ekimenak gehiengoaren babesa jasotzea. Aldi berean, aldekoek ez dute aurkakoen jarreran konfiantzarik. Politikan, elkarren arteko konfrontazioetan, badaude alde bakoitzekoei eskuetatik joaten zaizkien gauzak. Helegite hierarkikoarekin hasi dena, auzi -prozesala bihurtu daiteke.

Adibidez, Angeluko Claude Olive eta Miarritzeko Michel Veunac auzapezak ez dira ofizialki kontra, eta publikoki adierazi dute ez dutela parte hartu helegitean. Aldiz, hainbaten ustez, ofizialki egon gabe, aurka ari dinenengan eragiten dute. Angeluko Guy Lafitte hautetsia, esaterako, helegitea aurkeztu dutenen artean dago. Bi auzapezen ingurukoa da. Gizarte eta elkarteetako eragileen ustez, "hiri handietako auzapezak herri txikietako hautetsiez trufatzen dira. Ofizialki ez dute aurkeztu kontrako helegitea, baina barnealdeko hautetsien bitartez egin dute". Euren ustez, HELEP desmartxa ez da jukutria politikoetatik guztiz libre.

HELEPren aldeko abertzaleen esanetan, berau gauzatzea borondate kontua da, baina hautetsi batzuek ez dute Ipar Euskal Herria instituzio bakarrean ikusi nahi, edo ez dute behintzat harengan sinesten. Euskal Herria maite dutela diote, baina ez dute politikoki eratua ikusi nahi. Gainera, ez dute esaten argi eta garbi. Euskal Herria osotasunean ezin dute ikusi. Lurraldea ez badute bihotzean, hura politikoki osatuz gero arrotz sentituko dira. Garapen Kontseiluan lanean ari diren batzuen ahotik honelakoak ere aditu ditugu: "Hautetsi horiek beren burua Euskal Herritik at daukate. Identitate arazoa dute, edo euskal identitatearekiko errezeloa. Aiher direla esatea sobera da, baina ezin dute Euskal Instituzioa berentzat hartu". ■

lanki
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Dorleta auzoa, z/g.
20540 ESKORIATZA
Tel.: 943 71 41 57
http//mukom.mondragon.edu/lanki

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA
Martin Ugalde
Kultur Parkea
20140 ANDOAIN
Tel.: 943 591 200
www.kontseilua.eus
euskaraz bizi nahi dut

JoxeMi Zumalabe fundazioa
Ametzagaina Kalea 19
20012 Donostia
Tel.: (+34) 686 72 88 43
(+34) 652 731 304
harremanak@joxemizumalabe.eus

reas euskadi
ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea
red de economía alternativa y solidaria
Venezuela plaza 1 - 2 ezk.
48001 BILBO
Tel.: 944 160 566
reaseuskadi@reaseuskadi.net
www.economiasolidaria.org/reaseuskadi

ARGIA 2017ko egutegia

Egunero etxe, elkarte eta eskoletako hormak edukiz janzteko.

Ez beldurrik izan datorrenari... eskatu orain 2017ko ARGIAren egutegia eta irailean eskuratuko duzu.

Buruketak

Galdetzea libre

Atzokoak gaur

Santuak

Euskal izendegia

Eguzkia, ilargia eta mareak

Egutegia **9€**

Egurrezko taula egutegia opari **50€**

✆ 943 371 545
www.argia.eus/denda
denda@argia.eus

EKONOMIA OSTU ZIGUTENEKOA

Bi pauso nahikoa dira ekonomia adituek landu beharreko gai konplexua dela sinestarazi eta jarrera kritikoa itzaltzeko. Bat: ezinbestekoak diren oinarrizko ezagutzak hezkuntza publikotik kanpo utzi. Eta bi: lantzen denean, ikuspegi neoliberala egia absolutu gisa aurkeztu.

Lander Arretxea Bereziartua
@larretxea

Hartu edozein hauteskunde programa eta irakurri puntuz puntu. Uler liteke proposamenen mamia zerga bakoitza edo pentsio sistema zer den argi izan gabe? Jar al ditzake zalantzan Europako Banku Zentraleko handi-mandien adierazpenak beste eredu batzuen berri ez duenak? Sekula oinarrizko formaziorik jaso ez duenak, badaki kontratu, mailegu edo dena delako batean bere izena jartzean, zer demontre ari den sinatzen? Bada, salbuespenak salbuespen, ez; eta hala ere, urtero-urtero milaka nerabek institutua uzten dute sistema ekonomikoaren gorabeherak ulertu eta iritzi propioa garatzeko adinako ezagutzarik jasotzeke.

Enekoitz Etxezarreta EHUko irakaslea eta GEZKIko (Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua) partaide da. Dioenez, ekonomiaz edozer entzutean, ulertzeko zaila den gauza baten aurrean dagoela sentitzen du jende askok, eta hori ez da kasualitatea. "Behar baino gehiago bihurritzen da diskurtsoa, hizkuntza lar teknikoan plazaratzen dira berriak, jendeak distantzia har dezan eta ekonomiak bere arauak dituela ondoriozta dezan. Ekonomia beti da 'aditu horiek' ezagutzen duten zerbait". Gizarte ekonomiak aldiz, justu kontrakoa erakusten duela uste du: ekonomia gure esku dagoen zerbait izan daitekeela, kolektiboki erabaki sozioekonomikoak hartzeko eta eragiteko gaitasuna dugula.

Oinarrizko ezagutza bermatzea ez da nahikoa

Derrigorrezko hezkuntzatik lan handia egin daitekeela dio Etxezarretak, bai ekonomia pertsonengana gerturatuz, baita balio konkretu batzuk "sen oneko" gisa identifikaraziz ere. Uste bertsukoa da Leire Uriarte MUko irakasle eta LANKIko (Mondragon Unibertsitateko Lankidetzaren Ikertegia) kidea. Hezkuntzaren bidez ekonomiaren inguruko oinarrizko ezagutza bermatzea ezinbestekotzat du, baina garrantzitsua iruditzen zaio hori zein ikuspegitatik lantzen den ere zehaztea. "Hegemonikoa ez den pentsamendu ekonomikoak lekurik ez badu, munduaren gaineko ikuspegi partziala ematen ari gara, sistemarekin bat datorrena. Ez badiegu krisi ekologikoaz eta desberdintasunez hitz egiten, ze pertsona mota ari gara hezten?".

Ekonomia berreskuratu eta bizitzaren zerbitzura jarri beharra dagoela dio Uriartek. "Fenomeno ekonomikoek bizitza propioa dutela uste dugu, horrela aurkezten digutelako, eta ez ordea, gizakion esku hartze eta erabakien ondorio direla. Hori garbi ikusten ez bada, nekez sinets dezakegu ekonomia egiteko moduak alda daitezkeela".

Unibertsitatean ere, akritikotasuna nagusi

Derrigorrezko hezkuntzan ekonomiak duen paper urriak desinformazioa da-

URKO APAOLAZA / ARGIA

kar, eta oinarrizko ezagutzarik gabe, zaila da gero ikuspegi kritikoa garatzea. Baina goi eta erdi-mailako ikasketak egiteko ekonomia zehar-lerro duen bideren bat hautatu dutenek ere, apenas aurkitu duten euren begirada kritikoa zorrozteko tresnarik. Paulo Guridi bilbotarrak EHUren Sarrikoko fakultatean ikasi zuen Ekonomiako Gradua. Han ikasitako kontzeptuek egia enpirikoaren forma hartzen dutela dio, hala ez badira ere. "Neoklasikoa edo keynesiarra bezalako korronteek esaten dutena errepikatu eta aplikatzera bideratua dago, gogoeta pertsonalerako oso tarte txikia utzita". Graduan aurkitu ez zuen horren bila egin du ondoren Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioko masterra, eta kontraste handia sumatu du. "Irakasleak, kasu askotan, berberak dira, baina askeago sentitzen dira euren iritzia emateko, eta ekonomiaren hainbat aspektu kritikatzeko gune eta dinamikak sortzen dituzte".

CAIXABANKEK BABESTUTAKO HEZKUNTZA

Telebistan ikus eta entzuten dugunak ere badu eraginik ekonomiaz dugun ezagutza eta pertzepzioan. Zer esanik ez, txikienen kasuan. Euskal Telebista Publikoan haurrentzako *3txulo* saioan ekonomiaren oinarrizko kontzeptu zenbait azaltzen dituen *Ekonomikeriak* izeneko tartea dute: inbertsioa, deflazioa, banku dirua, barne produktu gordina… Saioa aproposa da hedabideetan ekonomiaz aritzean gehien errepikatzen diren kontzeptuetara hurbilpen bat egiteko, baina gaur egun bankuek, espekulazioak edo etengabeko

hazkunde nahiak duten eraginarekiko diskurtso kritikorik apenas sumatzen da. Askori ez zaio harrigarria irudituko, tartea Caixabank-ek babesten baitu.

Ez da soilik Euskal Herriari eragiten dion gaitza. Marina Sánchez valentziarra ekonomia feministan aditua da, ez ordea Bartzelonako Unibertsitateko Ekonomia Graduan ikasi zuenari esker. "Propaganda neoliberal erabatekoa da ekonomia fakultateetan ikasten denaren %90. Asko jota kurtso bakoitzeko ikasgai bakarrak biltzen ditu bestelako ikuspegiak, eta azaletik gainera". Ernai antolakundeak gonbidatuta zenbait hitzaldi egin ditu egunotan Euskal Herrian: estalpean geratzen den soldataz kanpoko lanez, bizitzaren jasangarritasunaz… Eta hori guztia ere ekonomia badela aldarrikatuz. "Horrek, esaterako, ez du apenas lekurik unibertsitateetan". Irakasle batekin elkarlanean ekonomia kritikorako talde bat sortu zuten lehenengo ikasturtean, eta horri esker unibertsitatean baino askoz gehiago ikasi duela dio.

» **MARINA SÁNCHEZ:**
"Propaganda neoliberal erabatekoa da ekonomia fakultateetan ikasten dugunaren %90"

Salbuespenak egon badaude

Badira egoeraren larriaz jabetuta bestelako bideak lantzen ari direnak. GEZKIren funtzioa, esaterako, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaskuntza eskaintzan Gizarte Ekonomiaren inguruan dagoen hutsunea betetzen laguntzea da. Hala dio Etxezarretak. "Gizarte ekonomiak, eta nagusiki kooperatiben mugimenduak, Euskal Herrian izan duen garrantzia kontuan hartuz, ez da zentzuzkoa unibertsitateko programetan hain presentzia eskasa izatea".

Alde batetik, GEZKIko kide gehienak graduetako irakasle diren neurrian, gizarte ekonomiaren gaiari tokia egiten saiatzen dira: euren irakasgaietan tarte bat eskainiz, kanpoko hizlariak gonbidatuz edo gradu amaierako lanetarako gaiak proposatuz, besteak beste. Eskaintza formal horretaz gain, prestakuntza osagarria eskaintzen diete ikasleei, urte luzetan zehar antolatu izan dituzten jardunaldien bitartez. Beste sail eta institutu batzuekin lankidetzan aurrez aipatutako "Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioa" graduondoko unibertsitate masterra ere eskaintzen dute.

Hezkuntzarekin zuzenean lotutako graduetan ere ari dira ekonomiaren inguruko hausnarketei tokia egiten, bai behintzat Mondragon Unibertsitatean. Lan horretan dabil Leire Uriarte. "Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntza graduan, bigarren mailan, eskola eta gizartearen arteko lotura lantzen dugu. Eskolaren erronken inguruko gogoeta egiten dugu gaur egungo gizarte aldaketen testuinguruan. Gizarte joera nagusiak ulertzea ezinbestekoa da eskolaren gizarte funtzioen gaineko hausnarketa egin ahal izateko, eta gizarte dinamiken baldintzatzaile handienetarikoa da ekonomia".

Kapitalismo neoliberalaren ezaugarriak eta eragina aztertzeaz gain, saiatzen dira bestelako egiteko moduak badaudela erakusten, Uriartek azaldu duenez: "Ekonomiak izan beharko lukeen helburuaren inguruan ere hausnartzen dugu: zertarako ekonomia? Gizartearen beharrei erantzuteko edo ahal beste irabazi lortzeko?". ■

IÑAKIBEREZIARTUA
ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA

25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean
Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
✆ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com

TALLERES
MITXELENA
S.COOP.

Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua
Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

DANTZA GARAIKIDEA
GORPUTZ ADIMENTSUAK

Gaitasun ezkutuak eta ezkutatutako gaitasunak. Adimen logiko-matematikoaz gain, beste zazpi mota daudela dio Howard Gardner psikologo eta irakasle estatubatuarrak, adimen korporala tarteko.

Verdini taldeko kide Nekane Prieto, Nerea Astarbe eta Aizpea Agirregomezkorta.

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
@xorginkeiak

Koordinazioa, malgutasuna, oreka, abiadura, intuizioa, abilezia, indarra, malgutasuna, kontzentrazioa, musika, gorputz eta buruaren arteko konexioa eta sormena garatzen ditu adimen korporalak. Dantza garaikideak biltzen dituen ezaugarri berberak, hain justu.

Down sindromea duen Haizea ilobaren jaiotzak bultzatu zuen Isabel Verdini dantzaria, hura bezalakoak protagonista dituen konpainia sortzera: Verdini Dantza Taldea. Gaitasun "ezkutuak" garatzeko aukera eman eta mugak ezabatzea dute helburu, hala nola, autoestimua hobetu eta jendartean integratzen laguntzea.

"Teloi gorria hartuta berarein ametsen marko. Emandako urrats bakoitza salto handi bat delako". Beñat Gaztelumendik, adimen urritasuna gai hartuta, 2013an BECen abestu zuen bertso sortatik.

Nekane Prieto eta Nerea Astarbe dantzariek ez dute dudarik egin: artistak dira eta artearekiko gaitasuna dute. Txalo eta lausenguak jasotzen dituztela ere kontatu digute: "Beti esaten didate oso ongi dantzatzen dudala. Aurrekoan loreak eman zizkiguten", dio Astarbek. Jendea ezagutu eta lagun berriak egiteko aukera izan dela adierazi dute, denbora baitaramate elkarrekin dantzan: "Asko gara taldean. Ni 15 urterekin hasi nintzen eta 23 ditut", esan du Astarbek. "Nik 33 dauzkat eta hamar urte daramatzat", dio Prietok. Bakarka baino, taldean dantzatzea nahiago dutela gaineratu dute, denek batera "indar handiagoa" dutelako.

Dantza garaikidea sentimendu eta emozioen espresioan oinarrituta dago eta hori transmititu ziguten dantzan ikusi genituenean: lan egiteko jarrera eta borondatea, gogoa eta sentimendua. Gardnerren arabera, beste adimen mota bat ere garatzen dute, gainera: adimen musikala. Panderoa ere jotzen duela kontatu digu Astarbek. Aukeratutako musika eta letrek emozioak azaleratzen laguntzen diete: "Ni oso erromantikoa naiz", batak. "Ni dantzan zoriontsua naiz", besteak.

"Joan dira oholtza gainera. Alturara, antzokira. Eta lehenbiziko aldiz parez pare jarri dira". Gaztelumendi

Hilaren 19an Donostiako Boulevardean *Metodo Verdini* ikuskizuna eskainiko dute, 17:30ean. **Abenduaren 3an**, Aniztasun Funtzionalaren Egunean, Donostiako Victoria Eugenian aurkeztuko dute proiektu berria.

Baina, dantza ez da mugimendua eta sentimendua soilik. Ariketa fisiko honek lanketa behar duela kontatu digute. Horretarako, beroketak egiten dituzte astelehen eta larunbatero. Halaber, kalitate tekniko zein artistikoa lantzeko, "modu serio, zorrotz eta konstantean" egin hehar da lan. "Korrika pixka bat egiten dugu, ondoren lurrean eseri eta luzaketak egiten ditugu: hankak zabaldu, burua belaunetaraino makurtu, abdominalak egin...", adierazi digute dantzariek hitz eta keinuz. "Nekatzen gara, baina merezi du.

"Denengana heltzen dira artearen ahalmenak. Urritasuna dauka hau ulertu ezin duenak", Gaztelumendi. ■

ZERK ERAGITEN DU **ERLEEN HERIOTZA** MASIBOA?

Liztor asiarraren gaineko albisteak maiz entzun ditugu azkenaldian, erleen heriotzak eragin eta naturako katea arriskuan jarri dutelako. Baina, albistegietako titularretatik harago, zer dago benetan erleen desagertzearen atzean? Zein egoera daukagu hemen?

Garazi Zabaleta
@tirikitrann

Erlauntzara joan eta erleen erdiak baino gehiago falta dira. Egoera horrekin topo egin dute aurrez aurre erlezain askok azken urteetan mundu osoan. "Arazoa mundu mailakoa da, bai, baina ez da berdin gertatzen toki guztietan: gure inguruan ez daukagu problema larri hori", azpimarratu du Egoitz Galartza Gipuzkoako Erlezainen Elkarteko albaitariak gaiari heldu baino lehen.

Izan ere, duela hogei urte inguru AEBetan erleen galera masiboak gertatu zirenean hasi zen kontua komunikabideetan oihartzuna izaten. Europan ere, 1985etik erle arrunten (*Apis mellifera*) erlauntzen %25 galdu da batez beste, Greenpeacen txosten baten arabera. Hainbat herrialdetan galerak askoz handiagoak izan dira, hala nola Erresuma Batuan, erlauntzen %54 desagertu direlarik.

Nekazaritza industrialarekin lotura estua

Erleen desagertzearen atzean dauden arrazoiak bilatzeko hamaika ikerketa egin dituzte mundu osoan. Ikerlariok erantzun argietara iritsi ez badira ere, faktore anitzek erleengan eragin zuzena dutela ondorioztatu dute: gaixotasunak, goseak eta pozoitutako landareek, besteak beste.

Galartzak ere erleen galera faktore askoren ondoriozkoa dela azpimarratu nahi izan du, baina aldiz, azkenaldiko erleen desagertzeak nekazaritza ereduarekin lotura zuzena duela ere argi du: "Batetik, nekazaritza industrialak paisaian aldaketa ikaragarriak ekarri ditu, eta bestetik, erabiltzen diren produktuek ere eragin nabarmena dute erleengan".

Baina nola eragiten diete paisaian egondako aldaketek erleei? Lehen lorez betetako zelai txikiak eta basoak zeuden bezala, egun paisaia horiek monolaborantzako lur eremu handiek hartu dituzte kasu askotan. Aldaketa hori oso nabarmena izan da, adibidez, AEBetan, non 2006tik "maneiatutako erleen" %30-40 desagertu den "erlauntzen kolapso" (ingelesez CCD siglak, *Colony Collapse Disorder*) deituriko arazoaren ondorioz. "Aldaketa ikaragarria gertatu da han paisaian: nekazaritza industriala asko zabaldu da, batez ere artoa eta antzeko monokultiboak, eta horrek zer dakar atzetik? Pestiziden erabilera, intsektizidak...".

Intsektizidak, erleentzako pozoi

Neonikotinoide familiako intsektizidak dira erleentzako kalterik handienak eragiten dituztenak. Horien artean, Greenpeacek ondorengo zazpi hauek izendatu ditu arriskutsuenen artean: imidacloprid, tiametoxam, clotianidina, fipronil, clorpirifos, cipermetrin eta deltametrin. Zuzenean debekatu beharko lirateke produktu horiek guztiak, erakunde ekologistaren ustez.

Intsektizida horiek xurgatzean, normalean, erleak ez dira momentuan hiltzen, dosia 'baxua' izaten baita heriotza azkarra eragiteko. Ordea, epe luzeagoan, produktuok erleen portaeran aldaketak dakartzate haien nerbio-sistema zentrala kaltetuz: eragin fisiologikoak, mugikortasun eta orientazioan kalteak edota elikadura eta ikasteko ahalmenean arazoak, besteak beste.

Modu horretan, pozoitutako erleak desorientatu egiten dira eta ez dira gai erlauntzera bueltatzeko. Emaitza: erlauntza erdi hutsak, erle hilak. "Erleak momentuan hiltzen ez direnez, produktuak merkaturatzeko egiten dituzten probetan substantziok onargarriak direla ondorioztatzen dute. Ez dute

» Azkenaldiko erleen desagertzeak nekazaritza ereduarekin lotura zuzena duela argi du Egoitz Galartza Gipuzkoako Erlezainen Elkarteko albaitariak

neurtzen, aldiz, epe luzera zein eragin duten", salatu du Galartzak.

2013tik Europar Batasunean hiru neonikotinoideren erabilpena partzialki debekatuta dago (tiametoxam, imidacloprid eta clotianidina) erleei eragindako kalteak frogatuak izan direlako. Produktu horiek ezin dira erleentzako erakargarriak diren laboreetan erabili.

Erlezainek, neurriak hartzea onuragarria izanik ere, nahikoa ez dela uste dute, produktu batzuk merkatutik kendu baina beste batzuk sartzen baitituzte jarraian. "Bayer, Syngenta eta halako enpresek ekoizten dituzte plagizidak. Boterearen aurka ari gara, eta multinazional handi horien aurrean erlezainak ez gara inor", dio Ainhoa Tolosa Gipuzkoako Erlezain Elkarteko idazkariak.

Eta, orduan, zein da irtenbidea? Erantzuna, argi du Galartzak, jendartearen esku dago hein handi batean: "Gaurko bizitza ereduaren ondorio da erlen galera ere, kontsumo ohiturei lotuta dago. Janari merkeak nahi ditugu, nola ekoitzi diren axola gabe... Denok bertakoa jango bagenu, inguruko baserritarrek modu iraunkorrean egina, arazo hauek ez lirateke existituko". Bai, betikora goaz berriro ere.

Eta baratzezain txikiok, zer?

Plagiziden erabilpenaz ari garenean, segituan etortzen zaigu nekazaritzako latifundiodun enpresa handi bat burura. Baina, zer dagokigu etxe atarian baratzea edo lorategia dugunoi? Proba txiki bat egin dugu: lorezaintzara zuzendutako supermerkatu ezagun batean intsektizida bila hasi, eta azkarren aurkitutako hamar produktuetatik lauk erleentzat "toxikotasun altuko" osagaiak dituztela ohartu gara (clorpirifos, dimetoato, abamectina).

Zer esan nahi du horrek? Bada, norbanakook ere badugula zer egina kontu honetan. AEBetako ikerlari talde batek zera gomendatu zuen: nork bere etxean edo lorategian erleentzako onuragarriak diren landareak jartzea, eta noski, herbizida, intsektizida, fungizida eta biozida horiek guztiak alde batera uztea. "*Bio* bizitza bada, eta *zida* hiltzen duena, bizitzaren hiltzaileak dira produktuok", dio Galartzak.

Alde guztietatik kolpatuak

Lehenago esan bezala, hala ere, plagiziden erabilpenaz gain faktore ugari daude erleen desagerpenean eragina dutenak. Gurean, erleen gaixotasuna da arazorik handienetako bat: *varroa* generoko bizkarroia, duela 30 urte inguru Asiatik etorria, polinizatzaileek bizkarrean izaten duten akain modukoa da. Erleei hemolinfa –ornodunen odolaren parekidea– xurgatu eta ahuldu egiten ditu, eta tratamendu kimikorik ezean erleak hiltzeraino kaltetzen ditu.

Akaroak, gainera, bestelako birus eta gaixotasunak transmititzen dizkio erleari, populazioa gutxitzeaz gain horren zati bat lanerako gauza ez dela utziz.

"Pentsatu behar dugu: erlauntzetik ateratzen den erle hori bizkarrean akaina duela doa, guretzat laranja moduko bat edukitzea izango litzatekeena. Birus batekin kutsatuta dago, eta hala ere lanera joan beharra du. Hori gutxi balitz, bere lantokia ez dago etxetik gertu, distantzia handia ibili beharra du iristeko, eta behin iritsita, han jaten duen produktua kutsatuta dago". Egia esan, harritzekoa litzatekeena da baldintza horiek ematen diren tokietan erleak ez hiltzea.

Herrialde guztietan galera neurri berekoa izan ez bada ere, Europan, 1985etik, erlauntzen %25 galdu da batez beste. Goiko argazkian, erle hilak ikus ditzakegu erlauntz batean. Heriotza masiboek hainbat arrazoirengatik gertatzen dira, horien artean aipagarriena pestizida mota batzuen erabilpena (eskuinean). Duela 30 urte Asiatik iritsitako 'varroa' akaroaren eragina ere izan behar da kontuan. Beheko argazkian bizkarroia duten bi erle ageri dira; erlearen bizkarrean jartzen dira, eta haren linfa –ornodunen odolaren parekidea– xurgatzen dute.

Eta zein toki libratzen dira baldintza horietatik? Nekazaritzarako balio ez duten inguruneak edo nekazaritza tradizionalagoa egiten dutenak, ingurune naturalak, hiriguneak... Harritzekoa badirudi ere, hiriguneetan kutsadura handia egonda ere, ez daude erleentzat kaltegarri diren hainbeste produktu eta pestizida. "Parisen, adibidez, modan jarri da erlauntzak etxeetako balkoietan edo hoteletan jartzea", kontatu digu Galartzak.

Zaindu jaten ematen dizun hori

Erlerik gabeko munduaz galdegin diogunean barrez erantzun digute erlezainek: "Ez da posible". Ikerketa askok erakutsi dute erleak eta gainerako intsektu polinizatzaileak nahitaezkoak direla jaten ditugun elikagaien zati oso handi bat ekoizteko. Greenpeacek 2014an ateratako txosten baten arabera, Espainiako Estatuan giza kontsumorako laboreen %70 intsektuen polinizazioaren menpe daude. Ekonomiari lotutako datuak ere argitaratu zituzten txostenean: 2011n intsektu polinizatzaileen lanak 2.400 milioi euro baino gehiagoko onura ekonomikoa ekarri zuen.

Polinizatzaileen munduko galera guztiak zaku berean ezin dira sartu, atzean arrazoi desberdinak dituztelako. Arazoak ez du, beraz, erantzun bakarra. Bai, ordea, aldaketak egiten asteko nahikoa arrazoi, norbera beretik hasita: "Nik garbi dut aldaketa ez dela etorriko Bayerrek ez dakit zer egiten duelako, aldaketa gugandik etorri beharko da nahitaez". ■

Zure jendea, zure hedabidea, zure iragarkia:
JARRI PUBLIZITATEA HEMEN
943 371545 • publiz@argia.eus • www.argia.eus/tarifak
ARGIA

PAGOA

KAFE ANTZOKIA

OIARTZUN

Ekainak 19
IGANDEA

AMAIA ZUBIRIA

+EDORTA AMURUA

19:00etan

Pagoa Kafe Antzokia:
Irekia:
ostirala, larunbata eta igandea
17.00tik aurrera
Erreserbak: 619 421 153
@PagoaAretoa
pagoaaretoa@gmail.com

Sarrerak
Aurrez 5 €| Egunenan 8 €

Oiartzun: Amazkar, Elorsoro,
Kapeo eta Pagoa Kafe Antzokia
Donostia: Donosti Rock
Errenteria: Kellys Pub
Internet: Colectivia, Mauka (berria)
eta www.ticket.kutxabank.es

Babeslea:

PAGOA
Euskal Herri berriko artisau garagardoa

Laguntzaileak:

ARGIA · antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA · berria · BADOK

NERABEAK

Beraien hizkuntza aldaketen ikertzaile

"Haurra, nerabea, gaztea... pertsona da. Ez etorkizunekoa, baizik eta gaur egungoa. Ez da helduon desioen asebetetzaile, baizik eta bere helburuak edo nahiak beteko dituen pertsona osoa". Lorea Agirreren aipu bat da, Jaime Altunak *Euskara pasilloetan galduta. Praktiken aldaketak eta hizkuntz mudantzak nerabezaroan* artikuluan jasoa. Soziolinguistika Klusterrak ematen dituen Hausnartu sarietan bigarren postua lortu zuen Altunaren lanak.

Malen Aldalur Azpillaga
@malenaldalur
ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Nerabeen hizkuntza aldaketak aztertu ditu Altunak bere lanean. Horretarako, ohikoa ez den metodologia erabili du. Nerabeak bihurtu ditu ikertzaile eta laneko protagonista. Sarri hitz egiten da nerabeez, baina gutxitan uzten zaie eurei hizketan.

Maria Castaño, Ainhoa Melero, Monika De Albiños, Elena Fonseca, Olatz Egia eta Xuban Ceccon Donostiako Zurriola Ikastolako ikasleak izan ziren ikertzaile aritu ziren nerabeak. Euretako bostekin hitz egin dugu ikerketaz eta hizkuntza praktikez.

Pozarren jaso zuten ikertzaile izateko aukera. Altunak koaderno batzuk banatu zizkien: "Egunean egindako ekintzak eta bakoitza zein hizkuntzatan egiten genuen idatzi behar izan genuen hamar egunez". Inoiz aurretik egin gabeko ariketa izan zen gazteentzat, izan ere, haien hitzetan "automatikoki" aldatzen dute hizkuntza batetik bestera eta inoiz ez dira pentsatzen hasi aldaketa horiek noiz eta nola egiten dituzten.

Esperientzia polita izan dela uste du Egiak, izan ere, gazteei "gutxiegi" ematen zaie ahotsa: "Asko eskertu dugu Jaimeren ikerketa, entzun gaituelako; askotan jende handiak guri buruz hitz egiten du guri ezer galdetu gabe". Adibide bat jarri du: "LOMCE legeaz inork ez digu ezer galdetzen, nahiz eta gu garen kaltetu nagusiak". Egiak azaldu du eurek ez dutela "jende handiari" buruz hitz egiten, eta beraz, beraiek ere ez luketela nerabeei buruz hitz egin behar, "ez behintzat gure iritzia aintzat hartu gabe".

Hizkuntzatik hizkuntzara saltoka

Gustura egin zuten ikerketa, eta baita ondorioak atera ere. "Inoiz ez dugu hizkuntza batean bakarrik hitz egiten", azaldu dute. "Erraztasun handiarekin hitz egiten dugu bi hizkuntzatan, eta ohartu gabe aldatzen dugu hizkuntza batetik bestera", azaldu du Melerok. Uste du kontua dela norekin eta zein espaziotan hitz egiten den: "Nik batzuekin beti euskaraz egiten dut eta beste batzuekin, berriz, beti gaztelaniaz".

Gelan euskaraz egiten dute, horretan bat egin dute guztiek. Nahiz eta pasilloa irtendakoan euskara "galdu" egiten den. "Gorputzaren kontua dela uste dut, hau da, gelan gaudenean gorputzak euskaraz egiteko eskatzen digu; eta gelatik irtetean berriz ez hainbeste", azaldu du Egiak.

Irakaslearen figura ere guztiek aipatu dute. "Gelan, irakasleak behartu-edo egiten gaitu euskaraz hitz egitera, baina irakaslea aurrean ez dagoenean azkarrago jotzen dugu gaztelaniara", dio Fonsecak. Dena den, Melerok uste du lagun taldeak ere asko egiten duela: "Guk koadrilan gehienbat euskaraz egiten dugu, baina beste lagun talde batzuek gaztelaniara gehiago jotzen dute".

Eskolatik kanpo, asteburuetan esaterako, bi hizkuntzatan aritzen dira. "Lagun taldearen arabera, hau da, ikastolako lagunekin irteten banaiz euskaraz gehiago egiten dut, baina beste eskoletako lagunekin banago, agian gaztelaniaz", azaldu du Egiak. Castañok eta Fonsecak aldiz, azaldu dute eurek asteburuetan gaztelaniaz egiten dutela gehien.

Etxeko hizkuntzak ere ba omen du garrantzirik, nahiz eta Egiak aitortu duen bere gurasoak erdaldunak badira ere, eta bere lehen hizkuntza gaztelania izan arren, aise moldatzen dela eta erabiltzen duela euskara.

Kontsumoa

Gaur egun, aurrez aurre bezainbeste hitz egiten dugu internet bidez. Whatsappari dagokionean, gazteek diote aurrez aurre erabiltzen duten hizkuntza bera erabiltzen dutela: "Lagunari bestela hitz egiten diodan hizkuntza berean hitz egiten diot whatsappez". Dena den, sare sozialetan euskara oso gutxi erabiltzen dute: "Instagramen esaterako gehienbat gaztelania eta ingelesa erabiltzen ditut", azaldu du De Albiñosek.

Barrutik ateratako moduan hitz egiten dutela diote gaztetxo ikertzaileek, baina euskaraz eta gaztelaniaz gehiago edo gutxiago egiten dute norekin dauden eta non dauden kontuan hartuta. Ezkerretik eskuinera, Elena Fonseca, Maria Castaño, Ainhoa Melero, Olatz Egia eta Monika De Albiños.

Telebistan zer ikusten duten azpimarratzekoa dela uste dute. De Albiñosen iritziz, ETBn esaterako, apenas dagoela beraientzako eskaintzarik: "Euskal Telebistan bi aukera daude, edo *Doraemon* ikusten duzu edo antzinako gauzei buruzko dokumentalak". Bat dator Egia: "Arrazoi du Monikak, *Herri People* eta *Azpimarra* ikusten dituzu edo bestela marrazki bizidunak".

Telebista gaztelaniaz kontsumitzen dute guztiek, nahiz eta musikan hizkuntza aniztasun handiagoa duten. "Nik musika gehienbat euskaraz entzuten dut, ez bereziki letragatik baina musika dantzagarriagoa egiten zait", esan du Egiak. De Albiñosek berriz, honela azaldu du: "Pozik nagoenean euskarazko kantuak entzuten ditut eta triste nagoenean gaztelaniazkoak". Castañok eta Fonsecak berriz, aitortu dute eurek gaztelaniaz eta ingelesez entzuten dutela gehien.

Etiketen pisua

Etiketek berebiziko pisua izaten dute, eta agian gehiago adin horietan. Elkarrizketatutako gazteek azaldu dute beste ikastetxeetako jendeak "*euskaldunetzat*" deitzen dietela euskaraz hitz egiten dutelako, nahiz eta eurekin gaztelaniaz aritzen diren. "Altus markako arropekin eta mendiko botekin ibiltzen garela ere maiz esaten digute, baina ez da egia".

Ikerketa egin ostean denbora batez hizkuntza aldaketekiko "kontzienteago" izan zirela esan dute, baina dagoeneko ahaztu egin omen zaie: "Gaia ateratzen denean berriro gogoratzen gara, baina egunerokoan hizkuntza aldaketak oso barneratuak ditugu".

Lan fina egin zuten ikerketan Altunaren ustez eta eurek ere atera zituzten ondorio interesgarriak.

"Konturatu gara askotan guri buruz ikertzen dutela kanpotik begiratuta, eta ez guri galdetuta", azaldu du Egiak. Gainera, ikerketaren ondoren hizkuntza joerekiko "kontzienteago" direla esan digute: "Ohartu gara pertsonaren eta lekuaren arabera hizkuntza batean edo bestean hitz egiten dugula".

Dena den, guztiek argi dute inoiz ez dutela hizkuntza bakarrean hitz egiten: "Beti nahasten ditugu gutxienez bi hizkuntza, baita esaldi berean ere", azaldu du Egiak. De Albiñosek eman dio azalpena horri: "Niri asko kostatzen zait itzulpenak egitea bai euskaratik gaztelaniara baita alderantziz ere, eta beraz ateratzen zaidan moduan botatzen dut". Horrela, "ateratzen zaigun moduan eta gorputzetik" hitz egiten dute Zurriola Ikastolako sei ikertzaile gazteek. ■

BABESLEA: **HERNANIKO UDALA**

Mitxoleta bixi-bixiak

Jakoba Errekondo
jakoba@bizibaratzea.eus

ALONSOLEJ-CC BY SA

Mitxoleta (Papaver rhoeas).

Senide du lo-belarra (*Papaver somniferum*), baina haren aldean, bixia da mitxoleta (*Papaver rhoeas*). Mitxoleta ezaguna da oso; "urdemutur" eta "urdamutur" ere deitzen omen zaio. Udaberria joan udaberria etorri, urtero lotsagorritzen ditu lur sailak. Neure lotsaren gorria ere berpizten du, Claude Monet margolariaz urtean behin besterik ez naizela gogoratzen berrituz.

Feniziarrek, grekoek eta erromatarrek Mediterraneoan barrena laboreak ekarri zituztenean, hazi haien tartean zetozen soroetako beste landareen haziak ere, nahasian; batez ere, mitxoletarena bezala ia ikusezinak zirenak. Eta landutako sail berrietan bapo. Laboreen aldean, azkar loratu eta hazia ematen du. Haien buruak heldu eta biltzeko moduan daudenerako, mitxoletak haziak sakabanatu ditu, eta ez gutxi: landare bakoitzak 50.000 eta 60.000 arteko hazi pila ematen du. Landare ugaria eta ziklo laburrekoa izateak mutatzeko eta egokitzeko gaitasuna dakarkio. Adibidez, gaur egun soroetan erabiltzen diren herbizida gero eta hilgarriagoen eragina saihesteko eta aurre egiteko ahalmena.

Mitxoleta landare indartsua da, aitzindaria. Beste landareek baino lehenago bereganatzen ditu lurrak. Lurrak ez, alorrak esan beharko nuke. Lur landuak atsegin ditu, mugituak. Zalaparta eta iskanbila non, han etorriko da, agudo asko! Hondeaitzurra edo goldea edo pikatxoia non dantzatu den, han, lur harrotuan etorriko da, bixi-bixi. Lur hori bakean utzi eta landare segida naturala hasten denean galduko ditu bere kemen guztiak; beste landareen aurrean belarriak bildu, eta beste norabait alde egingo du.

Hiru toki izaten ditu ondo bereak mitxoletak: labore soroak, eraikuntzen hondakinak edo erorkinak eta bide bazterrak. Beti gure atzetik hedatu izan da. Bideak ireki, lurrak irauli, eraikuntzak altxa, hondakinak baztertu... Han dago zain. Geu gara mitxoletaren pagotxa. Baita hautsikin zatarrenak eragiten ditugunean ere. Mitxoletak lur sailak gorritzen dituenean noizbait han isuritako odola berritu eta azaleratzen duela esango nuke. Gu garenean beti izango baita odolezko aztarna txarren bat, bizi izan ginenaren arrasto. Guda zelaietan, batez ere guda modernoetako zelaietan, beti ugaritzen da mitxoleta, bonbek harrotutako lurretan. ■

Hirutasuna

Hiru elkar hartuta. Gure kultura atlantikoko lurretako hirutasun nagusia badator. Artoa-babarruna-kuia. Oraintxe sortzen ari dira, hiru bat eginda. Soroari, kulturaren alorrari etekin hobea ateratzeko elkartasuna. Babarrunak lurrari nitrogenoa ekarriko dio, sustraietan apopilo hartuko dituen bakterio nitrofiloen bidez. Nitrogeno hori ederki baliatuko dute artoak eta kuiak. Artoak lastoa edo zuztarra eskainiko dio babarrunari luzatzeko eta lurreko hezetasunari ihes egiteko. Artoaren hostoak, erreten antzekoa edo aska-itxurakoa bera, ihintza oinaren aldera bideratuko du, babarruna ere ureztatuz. Artoaren hostailak itzala ematen die babarrunaren lekei, azal fineko ale goxoak ekar ditzan. Kuia, berriz, ederki hedatuko da soroko zirrikituetan. Artoa, babarruna eta kuia diren ganbaretan betor negu gorriena!

ARGAZKIA: JAKOBA ERREKONDO

LEKITTO BEDARRA

LEKITTO BEDARRA

Baratze komunala

Garazi Zabaleta
@tirikitrann

Marinel-herri izateagatik da ezagun Lekeitio (Bizkaia) gurean: portua, arrantzaleak, hondartzak, turistak... Bestalde, lurrarekiko loturaz ere aberastasun handiko herria dela azaldu digu Lekitto Bedarra taldeko kide den Julian Arratek: "Lekeition ortugintzarako kultura handia egon da betidanik, eta hori elikatzeko eta sustatzeko ideiarekin batu ginen gu". Duela lau urte taldea sortzeko asanblada deitu zutenean 50 pertsona baino gehiagok erantzun zioten deialdiari. Interesa bazegoela ikusita, antolatzen hasi ziren, egun Usotegi parkea dena lortzeko pausoak ematen.

Norbanakotik kolektibora

Usotegiko parkeko lurrak Lekitto Bedarrari utzi zizkion Udalak taldearen eskariari erantzunez. "Herrian ortu txiki asko daude, familiakoak, baina guztiak hormaz inguratuta egoten dira eta barruan bakoitzak nahi eta ahal duena egiten du". Usotegiko lursaila komunean lantzean, jendeak beren esperientziak, haziak eta landareak konpartitzen ditu komunikazioa eta elkar laguntza bultzatuz. Parte hartzaileen adinaz eta soslaiaz galdetuta, 20 urtetik 60 arteko tartea aipatu digu taldeko kideak, eta pasarte polita gehitu: "Aitona bat bere bi ilobekin etortzen da parkera, hor ikusten dituzu haurrak ere aitzurrarekin, aitona aholkuak emanez". Jende nahasketa hori egotea aberasgarri dela dio Arratek, harremanak sendotzeko eta jakintzen transmisioa egoteko.

Larunbatero hutsik gabe egiten dituzten auzolanez gain (gaur belarra moztu, bihar hazitegiak prestatzen ikasi, etzi tomate edo piperrak erein), bestelako ekimenak ere antolatzen ditu Lekitto Bedarrak: ikastaroak, hitzaldiak, Usotegi eguna; ikasiz eta gozatuz, aldi berean.

Auzolana bide

Hasieratik, lursaileko lanak auzolanean atera dituzte aurrera Lekitto Bedarrakoek. Izenak dioen bezala, garai batean uso-tokia zen parkea, eta hegaztiak egoten ziren dorrea dago bertan. "Dorrea erabat zahartuta zegoen, erortzen hasia. Auzolanean hasi ginen konponketa lanekin, eta herriko zenbait igeltserok parte hartzea lortu genuen". Orain, konponketekin amaitu eta gero, dorreko beheko solairua erabiltzen dute taldekideek sukalde bezala, botika naturalak eta beren edabeak prestatzeko.

Baratzea eta auzolana elkartzean lor daitekeenaren adibide polita Lekittokoa. Ziur barazkiek bestelako zapore bat hartzen dutela Usotegin... ■

BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea
@bizibaratzea

Eskaerak:
943 371 545 · www.argia.eus/denda
Salneurria: 23 €
Harpideentzat: 19,50 €

AURKEZPEN HITZALDIAK

Ekainak 15: Urretxu
Gaztetxean, 19:00etan.
Baserri Astearen barruan.

Ekainak 19: Agurain
Araba Euskaraz. Egun osoan,
B*izi Baratzea* eta *Altza Porru* eskuratzeko aukera eta kontsultategia.

Ekainak 22: Getxo
sOrtuak ekimeneko baratzeetan, 19:00etan. Eguraldi txarra izanez gero aterpera aldatuko da.
Antolatzailea: Egizu Getxo Euskaldun.

ALTZA PORRU!
AURKEZPEN-FESTA

Ekainak 16: Hernani
Karabeleko ekonekazaritza etxaldean, 18:00ak aldera.

ANTOLATU ZURE HERRIAN
sustapena@argia.eus
✆ 943 371 545

VESUVIO, PONPEIAZ HARATAGO

Nagore Irazustabarrena Uranga
@irazustabarrena

Vesuvioren erupzioa, Giorgio Sommer (1834-1914) argazkilari alemaniarrak 1872ko apirilaren 26an ateratako argazkian.

Vesuvio (egungo Italia), K.o. 79ko abuztuaren 24a. Sumendiaren erupzio bortitzak Ponpeia eta Herkulano suntsitu zituen, eta errautsek erromatar garaiko aztarnategi nagusietakoa gorde zuten mende luzez. Horregatik, Vesuvio Ponpeiari lotuta ezagutzen da gehienbat. Baina Europako sumendi aktibo eta bortitzenetakoak historia zabala du Ponpeiaren suntsiketa baino lehen eta ondoren. Eta egun munduko sumendi arriskutsuena dela uste da, Napolesko badiaren inguruan hiru milioi pertsona bizi direlako.

Plaka tektoniko afrikarrak eta euroasiarrak bat egiten duten gune horretan duela 400.000 bat urte hasi zen jarduera bolkanikoa, eta sumendia duela 25.000 urte eratu zen. Badakigu duela 18.000, 16.000 eta 11.000 urte erupzio pliniarrak izan zirela. Eta duela 3.800 urte Europak ezagutu duen erupzio bortitzenetakoa izan zen. Brontze Aroko hainbat herrixka suntsitu zituen. Baina 2006an arkeologoek handik alde egindako gizaki eta animalien aztarna ugari aurkitu zituzten, eta hiru gorpuren arrastoak baino ez; ia 2.000 urte geroago ez bezala, orduko hartan biztanle gehienek ihes egitea lortu zuten.

Erupzioek uxatu bezala, populazioa erakarri izan dute Vesuvioren magaleko lur bolkaniko emankorrek, sumendia lozorroan dagoenean.

472. eta 512. urteetan ere eztanda egin zuen. Eta 1631koak Ponpeia suntsitu zuen erupzioaren parekoa izan zen: fluxu piroklastikoa kraterretik hamabost kilometrora iritsi zen eta errauts hodei erraldoiak, besteak beste, Konstantinoplako zerua estali zuen. XIX. mendea bereziki aktiboa izan zen, sumendia zortzi aldiz lehertu baitzen.

1943an, berriro ere abuztuaren 24an, Ponpeiaren bigarren suntsiketa gertatu zen, baina hori ezin zaio sumendiari egotzi; hegazkin estatubatuar eta ingelesek vesuviorenak egin zituzten orduan, aztarnategian 400 kiloko 190 bonba jaurtita. Hurrengo urtean, 1944an, berriro ere sumendia jardunean hasi eta San Sebastiano herriaren zati bat suntsitu zuen. Eta horixe izan da Vesuvioren azken erupzioa, oraingoz. ■

Mark Twain eta Halley kometa

1835eko azaroaren erdialdean Halley kometa periheliora iritsi zen, hau da, orbitan Eguzkitik gertuen dagoen eta Lurretik hoberen ikusten den puntura. Handik bi astera, azaroaren 30ean, Samuel Langhorne Clemens jaio zen, gero Mark Twain ezizenez ezagun egingo zen idazlea. Kointzidentziaren jakitun, zera idatzi zuen 1909an, kometari 76 urte inguruko orbita osatzeko urtebete geratzen zitzaionean: "Halley kometarekin iritsi nintzen 1835ean. Datorren urtean itzuliko da eta harekin batera joatea espero dut. Zalantzarik gabe, Ahalguztidunak esan du: Horra hor fenomeno xelebre ulergaitz parea; batera etorri ziren, batera joan behar dute".

1910ean Halley kometa berriro azaldu zen zeruan eta periheliora apirilaren 20an iritsi zen. Twain biharamunean hil zen. ■

DONBASS: GERRA EUROPAREN BIHOTZEAN

Dokumentala estreinatu dute

Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Euskaldunok ezagun dugu proiektu bat martxan jartzeko diru-laguntza kolektiboaren ohitura. Zuk ere hartuko zenuen parte batean baino gehiagotan, irakurle, poltsa bidez, bonu edo errifa moduan, zozketaren batean edo zuzenean kontu-korrontean sartuta. Bada orain betiko laguntza ekonomikoari *crowdfunding* deitzen zaio. Interneten zertxobait moldatzen bazara ziur entzuna duzula hitza, eta akaso kanpainaren batean ere zure ekarpena egina izango duzu. Baina errifak karterako bazter ezkutuenetan bezala galtzen diozu askotan pista *crowdfunding*ari. Bere garaian bueltaka ibili zinela bai, baina askotan ez duzu jakiten azkenean dirurik bota zenuen ere, edo proiektua bera bideratzea lortuko ote zuten ere.

Nire kasuan adibide garbia da *Donbass: Gerra Europaren bihotzean* dokumentala. Egin ote nuen ekarpenik? Zer gertatuko zen proiektu horrekin?

Bai. Aurkeztu dute ikus-entzunezkoa Ibai Trebiño eta Mikel Arregi egileek. Arrasaten, ekainaren 11n. Donbassen (Donets eta Lugansk eskualdeetan) egin zuten egonaldia 2015eko martxotik uztailera bitartean, Kieveko Maidan plazako mobilizazioen ondoren 2014ko otsailean ukrainar oposizioak orduko Yanukovitx presidentearen aurkako estatu kolpea ematearekin eta interes geopolitikoak tarteko piztutako gerra dokumentatzeko lanetan. Ukrainako armadak jo-puntuan izan dituen zibilen testigantzak jasotzeko aukera izan dute gerra frontean.

Kazetaritza lan bezala definitzen dute egileek dokumentala. Bi aldeen bertsioak jartzen dituzte mahai gainean, eta "komunikabide masiboek Ukrainako gerra zibilari buruz azaldu ez dutena" erakutsi nahi izan dute lan honekin.

ARGIAk dokumentalaren produkzioan eta hedapenean kolaboratu du, eta urte osoko lanaren ostean jada plazaratuta, asmoa dago Euskal Herrian, Espainian eta Portugalen emanaldi bira bat egiteko. ■

"Zorionak, zorionak eta zorionak egiten duzuen lanagatik! Txoministak, Twitterra, Bizitza da handiena (eskertzekoa jarraipen-inplikazioa), Lomce, elikadura, Mozal Legea... Ez dauka desperdiziorik!"

Amaia Urtzelai,
ARGIAkoa

Tolosako Galtzaundi euskara elkarteak gonbidatuta, Sormenetik ekimenean izan ginen, Benito Lertxundiren hitzaldian, ARGIA ezagutzera ematen.

Argia Eguneko egitaraua osatzeko bilera Ondarroan

Ekainaren 16an, osteguna, 19:00etan elkartuko gara Kofradian. Denak zaudete gonbidatuta, denon artean ahalik eta egunik ederrena antolatu dezagun.

ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:** Astelehenetan, 8:00etan.
- **Euskalerria Irratia:** Astearteetan, 16:15ean.
- **Xorroxin Irratia:** Astearteetan, 18:00etan.
- **Info7 Irratia:** Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Bizkaia Irratia:** Asteazkenetan, 11:30ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:** Ostiraletan, 10:30ean.

ARTISTA BATEN GALDERAK MITIN BATEN ERDIAN

Honezkero zaila zaigu artistarik gabeko ekitaldi politikorik irudikatzen. Ohiko mitinetatik ihesi, azken urte luzeetan klase guztietako artistei deitu zaie mezu politikoren baten aldeko edo aurkako jaialdietan beren ekarpena egin dezaten, publikoaren emozioa jomugan. Baina nolako testuingurua da ekitaldi bat jardun artistikorako? Ze arrisku ditu entzulearen emozioa aldez aurretik bilatzeak? Zer da artista konprometitu bat? Gai horiez eta beste batzuez aritu gara Ines Osinagarekin eta Hedoi Etxarterekin.

Kepa Matxain
@kmatxain
ARGAZKIA: DANI BLANCO

"Ekitaldi politikoek igandetako meza nagusiaren antza handiegia izaten dute askotan". Ines Osinagak dio hori, ez behin eta ez bitan halakoetan parte hartu izan duenak. Zentzuzko konparazioa, pentsatzen du batek, biak dira, gutxi asko, komunitate baten uste eta sinesmenak indartzeko tokiak. Erraz irudika daiteke: fededunak pulpitura adi, handik datozen kantu, espitx eta argibideak jarraituz. Jo txalo orain, kantatu orain, oihu egin orain, emozionatu orain, eta amaitzean, denak altxa eta etxera, irribarretsu, halako arindu sentsazio batekin, bagara zer, bagara nor, ahaztuxea geneukan hona sartu aurretik baina hartu dugu nahikoa autoestima dosi beste puska batean burua tente ibiltzeko. Oraindik ere, inguru hauetan, ezer izatekotan, identitate autoafirmaziorako tokiak baitira ekitaldi politiko gehienak. Eta hala behar dute agian. Espektakuluaren garaiotan, boteprontoan, mezu politikoekin gehiengoak konbentzitzeko aproposagoak dirudite beste bide batzuek –sare sozialek edota telebistako debateek adibidez–. Gertatzen da, ordea, ekitaldietan "zeureentzat" ari zarela jakitun bertan goxo jarduten baduzu, deus birpentsatu gabe, betiko iruditeria erreproduzituz, arriskua daukazula honezkero fededuntzat zeneuzkan batzuk galtzen hasteko.

Ematen du azken aldi luzean badela formula bat antolatzaileei sistematikoki bururatzen zaiena, izan baliabide gutxiko ekitaldietarako, izan azpiegitura erraldoiekin egiten direnetarako: klase guztietako artistak gonbidatzea, bertsolariak eta musikariak nagusiki, baina baita poetak, idazleak edota dantzariak ere. Orduan sortzen dira galderak: zein toki dute artistok ekitaldi politikoetan? Beren kabuz aritzeko askatasun osoa daukate, edo aurrez ezarritako funtzio bat betetzera mugatzen dira? Itxura batean, behintzat, aipatu testuinguruak ez du aproposena ematen deus artistikoki interesgarririk sortzeko, baldin eta artea ulertzen bada printzipio, balio edota usteak zalantzan jarraraziko dizkizun ekintza bezala. Beraz, zertarako deitzen zaie artistei? Zer bilatzen da haiengan? Bada pentsatzen duenik sobera gogoetatu gabeko galderak direla, eta, besterik gabe, inertzia nagusitu dela. Halako zerbait aipatzen zuen Asier Azpiroz bertsolariak *Bertso marionetak* izeneko artikulu batean: zenbait ekitalditan kantatzerakoan soberan sentitu izan dela, eta bera ez balego berdintsu edo are hobe litzatekeela. "(Ekitaldiaren) mezuarekin bat egin arren, talde baten doinu eta errimadun mezu panfletarioa botatzeak, halako hozkirri bat eragin zidan bizkarrezurrean behera", zioen Azpirozek, aldi berean galdetuz: "Beharrezkoa al da toki guztietan bertsoa egotea? Bertsoari berari ez al dio kalte latza egiten?". Ekitaldien antolatzaileei minutu batez gaiaz gogoetatzeko eskatzen zien artikuluan. Musikariekin antzerako zerbait gertatzen dela uste du Osinagak: "Herri honetan txanpinoi bat jartzen badugu herriko plazan, kantu bat egiten diogu. Badirudi sinetsita gaudela kantuek badutela halako mobilizazio gaitasun bat defendatu nahi dugun kausa hori mundu osora zabaltzeko, jende guztiak izango duela haren berri... Eta susmoa daukat alderantziz ez ote den".

Igaro dira bi urte Azpirozen artikulu hartatik, ekitaldigintzak aurrera darrai eta oraindik ere masiboki deitzen zaie artistei, betiko mitin zurrunei kolore pixka bat eman diezaioten, mikrofonoko arrazoi zurrunak aski ez eta publikoa modu irrazionalago batean beregana dezaten; funtsean, entzulearen enpatia bilatuko duen osagaia jartzeko: emozioa. Ez da kontu berria. Hedoi Etxartek gogoratzen du XX. mendeko arte ekoizpen kritikoaren eztabaiden ardatzetako bat izan zela emozioarena. Stanislavski versus Brecht. "Jendea iritziz aldatuko dugu enpatiaren bidez ala arrazoiaren bidez? Ze gutasun sortzen da batean eta

Hainbat artistak parte hartu zuen aurtengo martxoan Elgoibarren Arnaldo Otegiren ongi etorrian. Euskal Herrian ohikoa da sortzaileek ekitaldi politikoetan parte hartzea baina, formatuak ez al du birpentsatzea eskatzen?

ze gutasun bestean? Ez badugu norbaitekiko enpatia ez delako gure antzekoa ez dugu bere alde borroka egin behar?".

Baina emozioa aldez aurretik bilatzea oso arriskutsua izan daiteke artistikoki, oholtzan nagusitu ohi den jardunak zerikusi handiagoa izaten baitu museoko kulturarekin sorkuntzarekin baino. Azken batean, komunitate oso bat emozionatu nahi duenak derrigor jo behar du komunitate horrek elkarbanatzen dituen erreferentzietara, ondare hori erabili behar du eraginkorra izango den modu batean, eta bukatzen du egiten egin litekeen akatsik larrienetako bat: politikoki eraldatzailea den mezu bati laguntzeko artistikoki oso kontserbadorea den artefaktu bat sortzea.

Artista eta pertsona

Zer igarotzen da artistaren burutik ekitaldi politiko batean parte hartzeko gonbita jasotzen duenean? Etxartek, Leninen eskolaren jarraitzaile deklaratuak, artista iraultzarako torloju eta gurpiltxo gisara ulertzen du, eta, halakoetan, bere buruari galdetzen dio: "Ze ekarpen egin dezaket jada mobilizazio horretan ari direnek egin ez dutena baina bertan behar duena? Nola izan ahalik eta ulergarriena? Bada lekua formatu horretan egoten ez den berrikuntza estetikorik sartzeko protagonismorik bilatu gabe?". Osinagak, ostera, bi plano desberdinetan ulertzen ditu pertsona eta artista. Eta, beraz, bereizi egiten ditu pertsonalki babesten dituen kausak eta artistikoki babesten dituenak. "Bada denbora bat erabaki nuela publikoki gai batzuen alde agertzea, eta beste batzuen alde ez. Ez alde ez nagoelako, alde agertu nahi ez dudalako baizik. Herri honetan kolore askotako kamisetak jantzi ditugu: laranja, berdea, urdina, morea... Fronte desberdin gehiegi dauzkagu irekita. Eta horien alde aurpegia ematean, aurpegi horrek balioa izango badu, ezin dugu erre".

Presoen eskubideak eta feminismoa. Horra Osinagak ia sekula ezezkorik ematen ez dien bi gai. Bada denbora bat erabaki zuela gai horien alde bustitzea, eta beste batzuen alde ez. "Horrelakotan, baiezkoa emateak gehiago du konpromiso politikotik artistikotik baino. Gertatzen dena da eskaparatean jartzen duguna gure *ni artistiko* hori dela, eta askotan *ni artistiko* horrek bukatzen duela egiten inoiz egingo ez lituzkeenak, *ni*

politiko horren izenean". Gainera, gehienetan, kantatzea ez beste edozertarako deitu izan diotela gogoratu du: bideo bat grabatzeko, testu bat irakurtzeko, ezer esan gabe prentsaurrekoko argazkian ateratzeko, kontzertuan kamiseta janzteko, kontzertuaren erdian mikrofonotik hitz batzuk esateko... gero, tartean behin, ekitaldietan kanturen bat jotzeko, eta, azkenik, kasurik onenetan, bere kantu bat talde osoarekin batera jotzeko. "Beti esan izan dut mikrofonoa dela gure arma gauzak kontatzeko eta aldatzen saiatzeko. Baina horrelakoetan behin eta berriz, zera sentitzen dut: nik musikari izan nahi nuen!". Kontraesan handiz bizi du musikariaren eta pertsonaren arteko talka. "Pentsatu izan dut artistikoki garesti ordaindu dudala horrelako ekitaldietan gehiegitan parte hartu izana, baina barruak hala eskatu izan didalako egin dut. Musikari izatea gauza bat delako, eta musikari izatea Euskal Herrian beste bat. Eta are gehiago: emakume musikari izatea Euskal Herrian beste zerbait diferentea".

Konpromisoaren ertzak

Esaera berriak dio: "Hasten da artista konprometitu bat ekitaldi politikoz ekitaldi politiko, eta amaitzen du ez artista eta ez konprometitu izaten". Ez da, noski, baieztapen serio bat, baina balio dezake uste batzuk auzitan jartzeko. Esaterako, zergatik den hain atzerakoia, salbuespenak salbuespen, egun ekitaldi politiko nagusien inguruan mugitzen den musika eszena. Etxartek aipatzen du joera bat: "Badago eszena zombie bat punk-rockari eta skari lotutakoa, *revival*ean bizi dena, eta ez dena soilik kontserbadorea, zuzenean erreakzionarioa da: forma musikaletan, hitzetan eta erritualean".

» **INES OSINAGA:** "Fronte gehiegi dauzkagu irekita eta horien alde aurpegia emateak balioa izango badu, ezin gara erre"

» "Ekitaldi politikoetan aritzeari baiezkoa emateak gehiago du konpromiso politikotik artistikotik baino"

» **HEDOI ETXARTE:** "Badago eszena zombie bat punk-rockari eta skari lotutakoa: erreakzionarioa da forma musikaletan, hitzetan eta erritualetan"

» "Jendea iritziz aldatuko dugu enpatiaren bidez ala arrazoiaren bidez? Ze gutasun sortzen da batean eta ze gutasun bestean?"

Izan daiteke, agian, konpromisoa ulertzen delako oso modu hertsian, batez ere ekitaldietan parte hartzeari edota lelo esplizituak kantatzeari lotua. Bururatzen zaizkio, hala ere, beste modu batera beren jardunean politika zuztarretaraino daramaten artista batzuk: Maialen Lujanbio Euskadi Irratian edo Unai Iturriaga *Jakin*en, adibidez. Edo haien jardun musikala zentzu sakoneko politikaz bete dutenak: Broken Brothers Brass Band taldeak kasu, "komunitatea inplikatuz, erritmo eta harmonia sofistikatuekin, letra garratzekin". Badira, orobat, haren ustez, ekoizpen bideak politizatu dituztenak "Bidehutsekoek edo Kerobiak bezala: lizentzien eta banaketen bidez". Edo soinu banda eta Think Tank izan direnak, "Negu Gorriak eta Fermin Muguruza edo La Polla Records bezala".

Ekitaldigintza inguruko eszena kontserbadore hori azalduko lukeen beste arrazoi posible bat: hainbat artistak ikusgarritasuna bilatzeko erabiltzen dituztela toki horiek. Neurri batean, hor agertzeak balio diela beren burua plazan kokatzeko, "hemen nago" oihukatzeko, eta, bide batez, urtean zehar plaza gehiago ziurtatzeko. Ez da paradoxa berria: kausa kolektiboen aldeko ekitaldietan parte hartuz egitea norberaren interesen alde. Osinagak sarritan pentsatu izan du gaiaz: "Urtean egiten ditugun kontzertuetatik zenbat dira atzean inongo pankartarik ez dutenak? Eta zenbaterainoko mobilizazio gaitasuna daukate? Musikariok zenbat jenderaino hel gaitezke inongo testuinguru militanterik gabe?". Eta, azken bat: "Ekitaldi politikoek behar dituzte artistak ala Euskal Herriko eszenak behar du atzean pankarta?".

Martxa eta borroka ezin dira bereizi garai berriotan. ■

Europa bat-batean
KANTU INPROBISATUAREN NAZIOARTEKO TOPAKETA
Uztailaren 11tik 15era
Goizetan, jardunaldi akademikoak Miramar Jauregian.
Matrikula zaitez www.uik.eus atarian!
ANTOLATZAILEAK mintzola ahozko lantegia DSS2016.EU LAGUNTZAILEA ARGIA

www.europabatbatean.eus

Datorren astean

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Heroinak odolean

Amaia Alvarez Uria

12etan bermuta
JASONE OSORO
Elkar, 2015

Pertsonaiek egituratzen dute liburu hau, atalak *ama*, *aita*, *amama*, *senarra*, *alaba*, *maitalea*, *anaia* eta *ni* baitira. Protagonistak, Bertak, euretariko bakoitzarekin bizitakoak aletzen ditu elkarrizketa, oroitzapen, gogoeta eta ametsen bidez. Bizitza pusketak konpartitzen ditu familia, adiskidetasuna, amatasuna, gizon-emakumeak, maitasuna, sexua edo bizitzari buruz hitz egiteko.

Idazle honen *Greta* nobelak pelikula baterako gidoia iradokitzen bazuen, *12etan bermuta*k antzezlan baterako gidoia du barrenean. Foku batek emakume bat argiztatzen du eta bere bakarrizketa entzungo dugu, tarteka oroitzapenen irudiak edo pertsonaiak berarekin gurutzatzen direla agertoki biluzian.

Bertak "jarraitu beharreko bidea" egin du eta bere bizitzaren erdira heldu da, mito erorien garaira. Bere ingurukoek ispilu izango ditu bere ibilbidea islatzeko. Belaunaldi baten memoria dugu, genealogia batean kokatuta. "Ez dut oraino aurkitu nire barruan amatasunak emakume oso bihurtuko ninduen azken zati hori".

Amamak emakume bezala egokitu zaion rola jokatu du alargundu arte, eta orduan heldu zaio askatasuna eta subjektu izateko unea. "Lanera, bazkaltzera eta txikiteora. Eta astean birritan edo, izterrak irekitzen zizkidan eta zakila sartzen. Horrelakoxea zen zure aitxitxa. Gizon gehienak bezalakoa".

Amak, ordea, bere rolak ezarritako bi funtzioak betetzen ahalegintzen pasatu du bizitza, ama eta erakargarri eta ederra den emakumea, *Edurnezuri*ren amaorde bihurtuz. Liburu honetan ama eta alaben arteko maitasun-gorroto harremanak gordin agertuko zaizkigu. "Zer da, bada, maitasuna, norbaitek asmatutako tranpa bat baino? Familia zoriontsuak gatibu mantentzen dituen amarrua? Desioaren zentsura?".

Bere gaztetako laguna ere ahalik eta ondoen bizirauteko artean huts egindako beste emakume bat da. Hala ere, miretsi egin du eta eredu izan du une askotan bere helduleku izan dena. "Ohe kontuetarako nahiago izan ditut beti barrabilak, baina bizitzarako askoz indar gehiago ematen dute bularrek, aluak".

Bere alabari irakatsi nahi dio bizitzea merezi duela, zoriontasuna bilatu behar duela. Oztopoak gaindituz segi eta aurrekoek egindakoak gogoan hartu. "Ona da negar egitea. Begira bestela niri. Badakizu emakumea izatea dela mundu honetako desgraziarik handiena".

Beraz, emakume izaten saiatu izan direnei omenaldi bat da lan hau, baita rol femeninoa auzitan jartze bat, memoriaren bitarteko kontzientzia hartzea. "Heroina odolean. Inongo literaturatan agertzen ez den heroina. Heroinak. Amak. Amamak. Alabak. Lagunak". ■

Jasone Osoro Igartua elgoibartarraren hirugarren eleberria da hau.

» TELEGRAMA

Ekainaren 17an eta 18an Euskal Herriko rock zaleen ezinbesteko zita Gasteizen: hemen da 2016ko **Azkena Rock festibala**, The Who, Lucinda Williams eta Primal Scream dira aurtengo kartelburuak *STOP* Hilaren 13an hasi zen **Zurrunbilo** euskal arte eszenikoen jaialdi berria Gasteizen: 19ra bitartean, diziplina ugaritako piezak programatuko dituzte *STOP* **Bloomsday** donostiarra ospatuko dute ekainaren 19an: James Joyceren *Ulises* nobelaren omenez Dublinen egin ohi den festak Gipuzkoako hiriburua hartuko du Donostia 2016ren Zubideak programaren barruan *STOP*

» DISKOA

Beti aitzinera

Joxi Ubeda

Hotzikarak
PETTI & ETXEKO UZTA

Elkar, 2016

Poztu egin naiz Petti eta Etxeko Uztaren disko berria eskuratu dudanean, eta oso gustura entzuten ari naiz, atsegin handiz. Oso lan ederra egin dute. Kantuak oso onak dira, eta oso ongi osatuak, landuak eta ekoitziak daude. Batzuk indartsuak eta energia handikoak dira, eta beste batzuk leunagoak. Kantuetan, besteak beste, grina, desira, ametsak, samina eta sentimendu gazi-gezak suma daitezke.

Petti abeslari, gitarria-jotzaile eta musikagile paregabea da, gero eta hobeto abesten du eta jotzen du gitarra, eta gero eta kantu hobeak sortzen ditu. Diskoz disko, beti zerbait berria, desberdina edo berezia eskaintzen du bere kantuetan. Bere doinuek blues, rock eta folk kutsuak dituzte, baina Pettik bere jotzeko estiloa dauka, bere nortasuna, eta bihotz handia. Erraietatik ateratzen zaio aski ezaguna den bere ahots urratua eta sakona, batzuetan indar handiarekin eta beste batzuetan leun eta gozo.

Juan Luis Perez Mitxelena "Petti" beratarra Etxeko Uzta taldearekin.

J. A. ARETA GOÑI (JUXE).

Astirtitan (Bonberenea Ekintzak, 2015) aurreko lanera kantu "nahiko biluziak" bildu zituen, Pettiren beraren hitzetan, eta hurrengo lana –aurten kaleratu duen *Hotzikarak*, alegia– "disko rockeroagoa" izango zela iragarri zuen eta soinu "elektrikoagoa eta sendoagoa" izango zuela. Hala da. Lana ederki egin du Etxeko Uzta taldearen laguntza estimagarriarekin. Joseba Irazoki (gitarra elektrikoak, *lap steel* eta banjoa), Igor Telletxea (bateria eta perkusioak) eta Iñigo Telletxea (baxua). Musikari bikainak dira, eta oso ongi moldatzen dira Pettirekin, txikitatik ezagutzen dute elkar, eta aspaldi hasi ziren elkarrekin jotzen.

Grabazio saioetan aritu diren gainerako lagunen ekarpena ere aipagarria da: Estitxu Pinatxo (ahotsa), Txus Aranburu (teklatuak), Joseba Baleztena *B. Lenoir* (gitarra), Felix Buff (bateria), Xan Bidegain (baxua), Víctor Sanchez (teknikaria), Josu Zabala (*Bi bide* kantuaren musika), eta hainbat kanturen hitzak idatzi dituzten Pello Lizarralde, Eneko Barberena, Igor Elortza, Beñardo Goietxe, Juan Luis Zabala eta Harkaitz Cano.

Petti eta Etxeko Uzta jendaurreko emanaldietan aurkezten ari dira *Hotzikarak* diskoa. Merezi du haien saio batean egotea. ■

Daddy cool

GAZTEA MAKETA LEHIAKETAREN FINALA

Maiatzaren 27an jokatu zen Bilboko Kafe Antzokian. Anerguria, Pet Fennec eta Dekot izan ziren hiru finalistak eta Dekotek irabazi zuen. GazteBizHitza saria irabazi zuen Katez taldeak ere bere kantua jo zuen, hala nola entzuleen artean boto gehien jaso zituen bigarren taldeak, Eraulek.

Fermin Etxegoien
@FEtxegoien

Saria potoloa zen, 5.000 eurokoa, eta lehiakide biren artean genituen zalantzak... Bataren maketa entzutean, neuri egin zitzaidan Belakoren oso kloniko, klonikoegi. Gainera, ingelesez abesten dute eta herri berekoak dira. Baina gero, zuzenean, sekulako maila eta nortasuna erakutsi zituzten, maketan zegoenetik askoz haratago ailegatuta.

Epaimahaikideon deliberazioak sekretuak izaten dira, noski. Tira, honezkero txibatu dizuet lehen kontu irregularretariko bat: Gaztea Maketa lehiaketan euskaraz abestea meritutzat hartu izan dela.

Ez dut errieta handirik espero zuzendariarengandik, ondotxo dakielako bereziki disfrutatzen dudala Gaztea, oro har, defendatzen, eta egin egingo nukeela gurean hain ohikoak izaten diren kultur ez transgenikoaren aldeko edozein biltzarretan.

Eta bestea –ez dezagun haria gal– Bilbo aldeko rapera jenial bat izan zen. Euskaraz oso ondo, espainolez hobeto, eta ingelesez ere, itxuraz, arazorik gabe aritu zena kantutan, orain ragga aldera, orain diva soul, orain jostarin, kasu guztietan dantzan ezin askeago bezain natural eginez.

Uau, ataka gaitzean ginen epaimahaikideok...

Hona hemen, desestimatu genituen gainerako hiru finalistak:

Donostiatik etorritako hirukote bat, maketan preziosista sentitu genuena –Allah Lahs?– baina zuzenean askoz soilago aritu zena, halako post-grunge intenporal bat beste barik eginez, ingelesez.

Donostiatik etorritako bakarlari bandadun bat, txeloak eta pianoa barne, nagusiki ere ingelesez abesten duena, eklektizismo *seventies* baten barruan, folk-rocketik orduko soul zurira eta alderantziz, demagun Rufus Wainwright bezalakoen eremuko dunak.

(Bide batez, bururatu zitzaidan hirurogeitamarreko hamarkada izan zela lehen hamarkada eklektikoa rock-musikan, demagun Roxy Music edo Talking Heads).

Hiru: arnasgunerik ez-transgenikoenetatik talde bat eta bakarra ailegatu zitzaigun, entzuleen saria jaso zuena ere, eta hasi eta buka euskaraz abesten zuen, baina guri, estilistikoki, alde handiz desfasatuena iruditu zitzaigun, errail bakarreko metal eta hardcore estiloen arteko intsistentziagatik.

Arnasguneetan gertatzen ari dena eta gune trasngenikoetan gertatzen ari dena, ia-ia antagoniko dira estetikoki.

Amurrion, Lorea Agirrek esan zuen nahiago duela semeak La Basu entzutea, Xabier Lete nor izan zen –eta nor den–jakitea baino. Tira, gutxi gorabehera esan zuen arestikoa, Aiaraldean antolatutako Jalgi jardunaldietan. Bat nator guztiz. Azkenean, gure epaia lehen taldearen aldekoa izan zen, baina zuzendariak sujeritu zidan neska rapera oso kontutan izango dutela aurrerantzean. Gurasoon arteko konplota beraz, euskal hip-hopa gure seme-alaben artean zabalduko bada. ■

Egilea: Ana Zambrano

Hitz gezidunak

Gaia: Goierriko herriak

XABIER ESKISABEL-CC BY SA

ZARATEMAN-CC

ZARATEMAN-CC

Zornotzako auzoa — Iturburu

2 — Nihaur (alderantziz)

Nepalgo herritar — Barazki mota

Etorri — Motel

Lege bateko puntuetako bakoitza — Laztan, maite

Kiratsa dariona — 1

Antropofago — Anperea

Ebazten duena — Landare mota

Umea, seina — Galdera, galde

3 — Musika tresna

Sufre — Putzu

Leku — Musu

Dohaindu — Fereka

Berniz distiratsu — Filme baten argumentu

Argizagi — Emeen ugatza

Hilobia — Altza!

Ardi hitzelkarketan — Adar txiki, kima

Bizi garen planeta — Elementu kimiko

Bailara, haran — Nafarroako herria

Omena, entzutea — Joan den urtea

4 — Balkoiak

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.

	4		7					
		5				1		8
3		7	5					
	9			3		7		
		1	6		4	8		
		3		9			6	
					9	5		4
1		8				6		
					7		1	

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Erabatekoak, petoak.
2. Jauzi.
3. Landare mota (pl).
4. Atarte, atalase.
5. Frikun, bihurri.

Soluzioak

5x5:

1. Osoak. 2. Salto.
3. Oloak. 4. Atari.
5. Kokiln.

8	4	9	7	2	1	3	5	6
2	6	5	9	4	3	1	7	8
3	1	7	5	8	6	9	4	2
4	9	6	1	3	8	7	2	5
5	2	1	6	7	4	8	3	9
7	8	3	2	9	5	4	6	1
6	7	2	3	1	9	5	8	4
1	3	8	4	5	2	6	9	7
9	5	4	8	6	7	2	1	3



Izaro Antxia. Futbol areto jokalari transexuala

Areto futbol partida baten harira izan genuen askok Izaro Antxiaren berri. Apirilean jokatu zuen estreinako partida emakumezko moduan Leioa Maia taldearekin. Ofizialki onartua izateko prozesua ez ezik, aurretik bizi izandako beste prozesu batzuk izan ditugu hizpide behinola Gorka izena izan zuen Portugaleteko informatikari honekin: bere buruaren eta besteen onarpena. Ideia sendoak agertzen ditu gizarteaz, feminismoaz eta berdintasunaz.

"Ez nintzen okerreko gorputzean jaio"

Jabi Zabala
@sarean
ARGAZKIAK: IÑIGO AZKONA

Noiz hasi zinen pentsatzen ez zegokizun multzoan zeundela?
Eskolan ez nuen ondo pasatzen, ez nien aurre egiten eta, aurre eginez gero, jotzen ninduten. Sexu identitatea gordetzen nuen orduan; hala ere, bullying-a jasotzeko ez duzu zertan homosexuala izan, ezberdina izatea nahikoa da. Banekien zerbait gertatzen zitzaidala, baina 7-8 urterekin ez nekien zer zen.

Sexu orientazioarekin ez zenuen lotzen oraindik.
Institutu garaian izena jarri nion, telebistan ikusitako dokumental bati esker. Hala ere, ez nentorren bat bertan orientazio sexualari buruzko estereotipoekin, gizon transexual bati derrigorrez gizonak gustatu behar zaizkiola-eta. Zalantzak nituen horregatik, baina azkenean gaia atera zen, are indar handiagoarekin. Oso txarto pasatu nuen orduan, bizitzen jarraitzeak merezi ote zuen zalantza...

Aurrera jarraitu zenuen baina.
Aurrera jarraitzea erabaki nuen, informazioa bilatzen, beste transexual batzuei galdetzen. Banekien pertsona bati kontatu orduko egia bihurtuko zela, hor hasiko zela prozesu bat. Apurka joan naiz hobeto sentitzen, lehen goibel agertzen nintzen argazki guztietan eta orain irribarretsu ikusten dut nire burua. Nerabezaroan aldaketa nabariak izaten dira, eta pentsatzen nuen: nola izango naiz emakumea gorputz honekin?

Zure gorputzarekin adostasuna bilatu duzu?
Gaur egun badakit aldatu ezin ditudan gauza batzuk badirela. Ezin duzu 18 urtetik 68ra ebakuntzak egiten egon. Jakin behar duzu zure ezaugarriak zureak direla eta batzuk ezin direla aldatu.

Hedabideetan agertu izana baliagarria izan zaizu zure buruarekin ados egoteko?
Egia esan, ez nuen ezer berretsi behar. Nire ametsa futbolean jokatzea zen. Kirolak indarra eman dit, txikitatik. Nire bizitzatik alde egiteko modua izan da. Azken urtean, entrenatzen hasi naizenetik, indarra eta jokatzeko grina sentitu ditut. Federazioarekiko arazoa ez da izan hain handia, NAN agiria behar nuela esan zidaten. Paper baten gorabeheran, pertsona bera izan arren, horrela ibiltzea... Nahiko tristea da.

Ikusgarritasuna

"Diskriminazio faktoreak metatzen dira: emakume eta lesbiana izatea bi faktore dira, emakume transexual lesbiana batek hiru bereizkeria faktore ditu. Arraza kontuak gehituz gero, faktore gehiago, jubilatua izanez gero beste bat... Gehitzen doaz, eta banan-banan kentzen joan behar gara. Ikusgarritasunarekin kentzen dira. Emakume bi eskutik hartuta ikustean pentsa dezakezu: "Zer ondo, inork ez ditu molestatzen". Baina nik diot: "Erreparatu egin diozu, zergatik? Bada, oraindik salbuespena delako". "Ikusgarriak izan gaitezen, ikusezin bihurtzea lortu arte" leloak laburbiltzen du gure helburua. Bi gizon eskutik helduta ikusi eta inor ohartuko ez den eguna helduko da".

"Lagun asko daude euren gustuko kirola egin ezin dutenak. Federaziora bazoaz, Alazne izena eduki arren, ez zaituzte onartuko, NANeko generoa bakarrik onartzen dute".

Orduan prentsan agertzearen helburua beste batzuk animatzea izan da?

Bai. Nik ez dut izan onurarik agertzeagatik, are, estresa jasan behar izan dut; baina orain 40 edo 100 lagun gara eta babesa behar dugu. Hemen ondo gaude, baina Burgosera bazoaz ez du balio. NAN berriarekin federaziora jo nuenean ez zidaten inolako arazorik jarri. Lagun asko daude, adingabeak tartean, euren gustuko kirola egin ezin dutenak. Federaziora bazoaz, Alazne izena eduki arren, ez zaituzte onartuko, NANeko generoa bakarrik onartzen dute.

Futbolaren erabilera sozial anestesikoa ere salatu duzu, eskubide kolektiboengatik ez borrokatzeko aitzakia dela.

Ez, jende guztiak behar du arazoak alde batera uzte hori. Beste gauza batzuengatik egin behar zaio kritika futbolari: klubak diruagatik dabiltzan enpresak dira. Futbola batzuetan babes moduan erabiltzen dugu eta ondo dago hori, baina lana galdu duenari ez zaio hori ahaztuko.

Feminismoaren kontraesanez ere idatzi izan duzu.

Oihartzuna izan du testu horrek. Ni Portugaleteko mugimendu feministan ibili nintzen eta mugimenduen barruan jende guztiak ez dira berdin hartzen. Bisexualen aldeko aldarria sartzea faltan sumatu nuen ekainaren 28aren inguruko manifestu batean eta jada eztabaidatua eta erabakia zegoela esan zidaten. Zergatik ez bisexualak babestu? Eta zergatik ez asexualak ere bai? Pertsonak jarri behar ditugu mugimenduen aurretik, jakin behar dugu noiz ari garen bestea zanpatzen.

Dogmak ikusten dituzu hor ere, beraz?

Zergatik naiz feministagoa depilatzen ez banaiz? "Patriarkatuaren eragina" omen... Tira, motibo asko izan ditzakezu, baina ez dira aintzat hartzen, jendea baztertzen da, are, gaizki sentiarazi. Feminismoak hori ikusi behar du. Zergatik ezin naiz ama izan? "Inposatutako rolak" onartzea dela diote. Beraienak ere inposatutako rolak dira, feminista batek nola pentsatu behar duen ezartzen dutelako. Ez esan gero guztion arteko berdintasuna bilatzen duzula, askatasuna ez baduzu bermatzen ez duzu berdintasunik nahi.

Estereotipo asko daude transexualitatearen inguruan?

Trans identitateak ez dira pertsona transexualak bakarrik, badira transgeneroak, trabestiak... Baina denak multzo berean sartu ohi dituzte. Adibidez, trabestien inguruan entzun duzunaz bakarrik baliatuta ez duzu askorik jakingo. Elkarren oso ezberdinak dira, homosexual edo heterosexualak dira.... Jendeak informaziorik gabe hitz egiten du, errazegi. Sexu aldaketaz hitz egitean, "okerreko gorputzean jaio zen" gisako esaldiek ez dute zentzurik. Ni nire gorputzean jaio nintzen, eta ordutik sexu berdinekoa izan naiz.

Sexu berrezarpena egingo duzu, hala ere.

Nire gorputzarekin ez naiz ondo sentitzen gerritik behera, nire sentitzen ez dudan gorputz atal bat ikusten dudalako, baina ez naiz horregatik okerreko gorputzean jaio. Ondo sentitzeko egingo dut, aldagela batean sartzen naizenean ez zait gustatzen hori erakustea, ezkutatzen dut, inguruko guztiek dakiten arren. Konplexua kentzeko gogoa dut, eta ebakuntza egindakoan kenduko dut, ez da bidearen amaiera izango baina bai urrats bat. ■

Erraustegiaren aldeko hipsterrak, tendentzia berria Gipuzkoan

"Ni lehen nengoen erraustegiaren kontra, *mainstream* bihurtu aurretik", adierazi dio kazeta honi Ricardo Gibelalde 40 urteko nerabeak. Bera eta beste zenbait gipuzkoar –oso gutxi, egia esan, abangoardiak hala izaten dira– konturatuta daude hemendik aurrera probintzian *diferente* izan nahi duenak –alegia, besteak baino pixka bat hobea– gai horren inguruko postura berrikusi beharko duela.

"Gipuzkoa Zutik eta kontu hauekin lehen alternatiboa zen jarrera jende guztiaren ahotan dabil eta zentzua galdu du. Techno-poparen *revival*arekin egin genuena errepikatu beharko dugu: inork defendatu ezingo duen zerbaiten alde jarri. Eta erraustegia baino gauza defendigaitzagorik, gutxi".

Tendentzia berriaren ezaugarri nagusia hipster gipuzkoar hauen orrazkera da, mutilen kasuan behintzat. Erraustegiari bidea erraztuko dion zabor poltsa imitatzen dute, buruan motots txiki bat eginda. "Atez atekoaren aldekoak dantzan poste batzuk bezalakoak zirela ikusita bururatu zitzaigun", aitortu du Gibelaldek.

SAREAN ARRANTZATUA

Korrupzio gehiagorekin? Alde!

Zientifikoki frogatu dute Iker Muniain tipo txintxoa dela

Irina Hankabaloivitx biologo serbiarraren lantaldeak aurkikuntza miresgarria egin du: "Futbolari profesional guztiek gene berezi bat dute, beti ondo portatzera derrigortzen dituena". Zientzialarien esanetan, oraindik ez dago argi futbolariek jaiotzeko unetik duten gene hori, edo profesionaletara iritsi eta milioiak kobratzen hasten direnean hazten zaien.

Aurkikuntza horrek frogatzen du berriki Iker Muniain Athleticeko aurrelari trebeari eta hainbeste inporta ez diguten Espainiako beste futbolari batzuei leporatutako sexu abusuak ezin direla benetakoak izan. "Futbolariak fisikoki ezgaituta daude halako gauzak egiteko; izan ere, une oro umeen eredu izatera bultzatzen ditu barne-indar batek", azaldu du Hankabaloivitxek, asko dakienaren keinu klasikoak eginez.

"A ze albistea, Muniain errugabea dela bagenekien guk, hainbeste genetika eta ostia gabe; Athleticekoa da eta!", esan du Bilboko futbolzale anonimoen federazioak.



"Guztiz ezinezkoa da Muniain sexu kontu horietan inplikatuta egotea", diote argazki hau ikusi duten 10 pertsonatik 9k. Bestea realzale madarikatu bat besterik ez da.

ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilero ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzuenon artean.

OROIMEN HISTORIKOA
PAREKIDETASUNA
HERRIEN MUNDUA
HEZKUNTZA ERALDATZAILEA
EUSKALTZALETASUNA
EKONOMIA SOZIALA
ELIKADURA BURUJABETZA
INDEPENDENTZIA
DEMOKRAZIA ZUZENA
DESOBEDIENTZIA ZIBILA
GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA
ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

Jakoba Errekondoren *Bizi Baratzean* jasotzen den bezala, *gaur egun, iraultzailea den gauza bakanetako bat baratzea da. Lurrarekiko lotura, elikadura burujabetza, bertako mozkinak, bioaniztasuna, osasuna, bizitza kalitatea, paisaia kulturala. Zer da ba iraultza?* ARGIAn burujabetzaren aldeko apustua egiten dugu, bai elikadurari dagokionean, baina baita komunikabide bezala, informazio burujabetzaren bidean ere.

EKAINEKO ZOZKETAK

Mugarik gabe GKE
Material sortak
www.mugarikgabe.org

Jakion produktuak
Kontserba saskiak
www.jakion.es

Euskal Herriko Laborantza
Ganbararen DVD eta liburu sortak
www.ehlgbai.org

Jakoba Errekondoren Bizi
Baratzea eta Ilargiaren egutegia
www.bizibaratzea.eus

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO
✆ 943 371 545
gunea@argia.eus
www.argia.eus/gunea

ASTEAZKENERO **ARGIA**N IKUSGAI

TXOMINISTAK

NAROA MIKELARENA · JON ANDER ALONSO · EDURNE AZKARATE · EÑAUT GANTXEGI

ENERITZ ARZALLUS · LANDER ARRETXEA · MIKEL FERNANDEZ · UNAI GAZTELUMENDI · PERU ISASI · BEÑAT ITURRIOZ · ANE LUSARRETA · KEPA MATXAIN · MIKEL ROMAN · LAIDA ZABALA

HIRU DAMATXO IDEIA FAKTORIA

ARGIA

AZKUE FUNDAZIOA